

IPUYAC

ETA

BESTE MOLDAERA BATZUEC

GUIPUZCOACO IZQUERAN NEURTUBAC

RUSCAL-ERDERAZCO

ITZTEGUI LABUR BATEQUIN,


ITZIC ILUNCHOENAC ARGUTZECO.



TOLOSAN:

EUSEBIO LOPEZ-EN MOLDIZTEGUIAN,

1884-garren urtean.





Euscal-errico gazteriari.

Nere euscal errico
Gazteri ederra,
Ez det uste derala
Eguin lan alferra
Ipuiac ifintzean
Gure zoreicoan,
Cantatzeco, nai bada,
Arturic gogoan.
Badirade latinez,
Badira erderaz,
Ez alditugu bear
Guc ere euscaraz?
Bai, on da jaquitea
Chit omen cequitela
Ederqui itzquetan
Chacur, eta caluac,
Auntzac, aceriac,
Itz batean, orduco
Abere guztia.
Ala dio Esopoc,

Guizon eguitia
Ole zan ez daquit nie,
Edo guezurtia;
Baña ez da dudarie
Zala chit chiquia,
Bizcar macurra, eta
Jaquintsun andia,
Eta lendabicico
Onen mesedeac
Mintzarazo cituen
Ederqui abereac.
Aditrican oien
Jardun erausiac,
Eguingo dituzute
Astotan ibiac.
Eguingo ere dezut
Eguinican farra.
Ez den orregatie
Gende ura uarra
Ipuien acaballan

Dauden sentenciac
Aguiri da dirala
Eguia audiac;
Eta sartzen badira
Zuen biotzetan
Damutuco ez zazute

Ceren egunetan;
Orra Esopo jaunac
Nai duen saria
Eta orra nie ere
Nai dedan gucia.





ACERIA ETA OLLOA.

Aceri zar andi bat
Gosaldu gabea
Cebillen sasiz-sasi
Errabiz beto;
Illuntzera cijoan,
Eta mocaduric
Jan gabearquitzen zan
Gaisoa oraindic.
Ollo batec cacaraz
Eguñic onetan,
An dijoa laſterca
Lau oñen puntetan,
Ozta olloteguiria
Alderatutzen zan,
Ollo guztiaç igues
An dijoaz egan;

Bacarric guelditu zan
Otarre batean
Colcaarquitzen zan bat
Arraultzen gañean.
Aldamenetic zaio
Aceria asten
Colcari belarrira
Onela esaten;
¡Cer da ori, maitea!
¡Quioa al' dezu,
Edo arraultz eguiten
Zande orrela zu?
Atera bear nazu
Quezca onetatic:
Nola arquitzen ceran
Jaquin nai nuque nic.

Jauna, dio olloac,
Arquitzen naiz gaizqui;
Ayenatzen bacera,
Jarrico naiz ongui.
¿Cembati, nola gauden
Galde egnitean,

Ez diegu esaten
Gueren barrenean,
Aceriari esan
Ciona olloac,
Miñez ceucan orduan
Sasquian quioac?

CHACUR BIAC.

Sultan zanzacur ausart
Gutzizco jalea,
Batez ere ariqui
Guicenen zalea.
Izter lodi andi bat
Bein, uste cabean,
Nagusiari cion
Ostu bere echean.
Pinto, aren laguna,
Ez jale chiquia,
Zocoz-zoco cebillen
Galduric guztia,
Sultanen billa, eta
Sucal-bazterrean
Noizbail topatu zuen,
Etziñic lurrean,
Ari izterra jaten
Aleguin guztian,
Arturican aurreco
Bi onen erdian.
Beldurrez ez ciola
Utzico paquean,
Marmar asi zan Sultan

Pinto icustean,
Beguiac armaturic,
Jasoric sudurra,
Letaguñaz puscetzen
Zuela ezurra.
Pinto asitzen zaio
Bertatic galdetzen,
¿Cer deabruqueria
Ari aiz eguiten?
¿Ceñec burutara die
Eche mot onetan
Astea orren fresco,
Pinto, lapurretan?
¿Ez aiz oroitzen cembat
Nausiac nai digun?
¿Gurequin dabilela
Jostatzen gau ta egun?
¿Ez duela beñere
Jaten mocaduric,
Aurrena gu biyoi
Eman gabetanic?
¿Nausiari diozcae
Ematen esquerrac,

Despensatic ostuaz
 Arien izterrac?
 Onelaco pagoric
 Ez die arc mereci;
 Bertalican bear dec
 Izter ori utzi;
 Zacurrac izan beaic
 Leiala, prestua,
 Edo ez dec zacurra
 Baicican catua.
 Bertalic seguitzeco
 Ire consejua,
 Ceña icusten diat

Dala chit justua,
 Pinto, dio Sultanec,
 Galdecho bat iri
 Eguin beaiat orain;
 Esan zadac niri;
 Baldin ari izter au
 Utzitzen badst nie,
 Pinto nere maitea,
 Ez aldece jango ic?
 Besteri consejua
 Nai dionac eman,
 Lenaz icusi beaic
 Bera premian dan.



ERREMENTARIA ETA ZACURRA.

Errementari batec,
 Campora joatean,
 Eche-zai uzten zuen
 Zacurra alean.
 Egun batez lapurrac
 Dirua cuchiatic


Ostu zuten, sarturic
 Atzeco aldetic.
 Oartu zan orduan
 Errementaria
 Falta zala echean
 Zan diru guztia.

Burua galdu, eta
 Arturic maquilla,
 Eche guztitac dabill
 Zacurraren billa.
 Atorquitonontz, Turco,
 Oju eguiten dio,
 Zacurra iñill iñill
 Badijoaquo
 Guztia beldurturic
 Belarriac bean,
 Burua macur, eta
 Buztana ancapean.
 Turco, esaten dio,
 ¿Certaraco aut nie?
 Ez dioc echeari
 Eguiten conturic;
 Malluen otsac ez au
 Beñere esnatzen;
 Plater-soñuac herriz
 Lañter au ernaitzen;
 Lanari utzi, eta
 Ni jaten astean,
 Falla gabe an ancat
 Zut aldamenecan.
 Ez dec iñoiz icusi
 Nere suteguia,
 Maican icusten dec
 Ire nagusia;
 ¿Uste dec nosqui, Turco,
 Aicela condea,
 Orrela bicitzeco,
 Ase ta betea,

Beti etziñ eta lo,
 Alcha gabetanic,
 Sucaldera joan, eta
 Asetzeco baicié?
 Itz oien ondotican
 Turcoc icustean
 Nausiaren maquilla
 Zuela gañean.
 Igues eguin ondoren
 Aurreco atetic,
 Ojucá asten zaio
 Burua jasoric:
 ¿Cer du gueiago, Jauna,
 Nie baño condeac?
 Nie beciñ ongui daqui
 Bere mesedeac,
 Sortzetac dacarrela
 Norc bere patua,
 Naiz dala zacurra ta
 Naiz dala catua;
 Ez cituen zacurrac
 Eguin Jaungoicoac
 Lanean aritzeco;
 Baicican astoac.
 Nausiac icusiric
 Burna ain gora,
 Beldurrez ez cequion
 Saltatu lepora,
 Eranzun bide cion
 Modu onarequin,
 Ez detnai, condejauna,
 Nie jardun zurequin.

Oiee guztiaç dira
 Zure erausiaç,
 Acabatu ditzagun
 Gaur gure auciaç.
 Zuc badaquizu dala
 Eche au nerea,
 Eta nai det emendic
 Campora joalea.
 On da ieus dezazun,
 Turcocho, gaur bertan,
 Nola biei diraden
 Beste echeetan.
 Ieusiric zacurraç
 Ala despeditzen,
 Asten da emen sartu
 Eta andic irten.
 Ez du Turcoç gustoco
 Echeric topatzen:
 An erabilli beau

Tornu buruntzia,
 Erretzecó arentzat
 Ez dan ariquia;
 Emen ichu surreco
 Da aren jarduna,
 Beti barau, ez dezan
 Galdu osasuna;
 Azquenic beste eche
 Aberats batean
 Gantaegun an daucate
 Loturic catean.
 Onela ieusten du,
 Dirala laratzac
 Errian diran eche
 Guztietan beltzac,
 Eta lan eguiteco
 Gure Janngoicoac
 Guzliec gaituela
 Eguiten astoac.



CATU BIAC.

Eche andi batean
 Cituzten catu bi,

Bata Zapiron, eta
 Bestea Misipi.

Biac ceuden guicenez
 Lertzeco zorian;
 ¡Nore beste alaco bi
 Arquitu errian!
 Maitatuac ciraden
 Echean biciro,
 Ayen bicia oi zan
 Jan, josta eta lo.
 Beti uzten cituzten
 Bi catu prestuac
 Paquean arratoiac,
 Paquean saguac.
 Samurreguia zuten
 Gaiñoac biotza
 Ayei emateco
 Zarpaz eriotza.
 Goiz batean ceudela
 Eltzeen ondoan,
 Lurrean etziñica,
 Lo gozo-gozoan,
 Abarrotz batec ditu
 Batean esnatzen,
 Eta aurrera dute
 Biac beguiratzen;
 Icusten dute suan
 Torna-burruntzia,
 Eta artan giraca
 Capoi bat andia.
 Erasotzen diote
 Biac capoyari,
 Eta dirade jaten
 Atzaparca ari,

Beguiac armatorie,
 Eta marmarraraz,
 Buztana arontz onontz
 Maiz erabilliaz.
 Icusteacoac ciran
 Bat eta bestea,
 Tantaca cocoltzetic
 Jarioz coipea.
 Jan cituzten orduan
 Mamiac, ezurrac;
 Baita ere garbitu
 Mingañaz sudurrac;
 Misipic omen cion
 Esan Zapironi:
 Gauza bat orain zaidac
 Gogoratu niri;
 Jan degun ezqueroztic
 Capoitza guztia,
 Jan dezagun lafterca
 Orain burruñcia.
 Ago iñilic, mutill,
 Dio Zapironec,
 ¿Conciencia ori
 Eguiteco non dec?
 Eranzun omen cion
 Irriaz Misipic:
 Astoa, zerrepañac
 Cer dion ez daquic?
 Concienciarano
 Elorri ezquero,
 Mandoa nerea dec
 Guerocoa guero.

Zapironec, enzunic
 Cer cion Misipic:
 Janzac nai badec, dio,
 Ez diat jango nie.
 ¿Cemba ez ole dira
 Cristaben artean

Escrupuloz beteac,
 Eciñ dutencan,
 Eta besteen gauzaz,
 Escrupulo gabe,
 Eguiten diradenac,
 Albadute. jabe?



ITZ-ONTZIA.

Parisen eta beste
 Erri andietan
 Icusi oi dirade
 Asco carriquetan,
 Egunaz eta gabaz,
 Guizon itz-ontziac
 Gendez inguraturic
 Daudela guzliac.
 Batec an eguiten du
 Artzaren orrua,
 Besteac or gabazco
 Ontzaren cantua;
 Azquenie beste batec

Arpegui berean
 Farra eta negarra
 Dembora berean,
 Eracusten duela
 Arpeguia, ciñez,
 Alde batetic farrez,
 Bestetic negarrez.
 Ayen artean zan bat
 Chiquiratzallea,
 Guztien gain-gañeco
 Gurrinea-guillea.
 Chit gendeasco ceucan
 Carrica-buruan,

Aoac zabalduric,
 Bere inguruan.
 Capa andi batean
 Cegoan bilduric,
 Bultzaca, ecin lecu
 Iñolaz eguiñic.
 Oju eguiten cioten,
 Fuera, fuera capa,
 Beldurrez cezaquean
 Cerhait ala tapa.
 Capa quendu ondoren
 Gurrinc eguiten du
 Añ ongui, non gendea
 Algaraz lertzen du.
 Asten da bereala
 Gurrincari abilla,
 Chapela lozaturic,
 Bertan dira billa;
 Eta mutico batec
 Dioque esaten,
 Jocatuco diola
 Gurrinca eguiten.
 Apostura eguiñic,
 Biaz dira asten
 Carricaren erdian

Gurrincac eguiten.
 Adito zulenean
 Chiquiratzallea,
 Oju eguiten dute,
 ¡Len baño obea!
 Eta aditurica
 Guero muticoa,
 ¡Fuera, fuera! esanaz,
 Gendea an dijoa.
 Galtzarbe sare bat du
 Mutillac aguertzen,
 Eta cherricume bat
 Dic eraosten,
 Esaten dielarie,
 Chimurchi batequin
 Ez nic, mutico onec
 Dic gurrinca eguin.
 Zuec diozutenez,
 Chiquiratzalleac
 Eguindizque gurrioca
 Onec baño obeac.
 Erriac baciaduzte
 Zuec burazagui,
 Ezuque justiciya
 Ibillico gaizqui.

OTSOA ETA ARCUMEA.

Arcume bat juan zan
 Erreca batera, [bein
 Egarritu zalaco,
 Ura edatera;

Irteten da otso bat
 Aurreco menditic,
 Jartzen zayo edaten
 Garaico aldetic.

Bildocha cegoan chit
Mardul, biribilla:
Asco ibiltzen guera
Alacoen billa.
Astén zayo otsoa
Ojuka esaten:
Mutill, ¿certan ari aiz
Ur guztia loitzen?
Jauna: dio bildochac,
Naita ere uric
Ecin ciquin nezaque
Nie beco aldelic;
Ieus beza berorrec,
Baldin badu gura,
Or goitic emen bera
Datorrela ura.
Ala dec, dio, baña
Orainche urte bi,
Ciquindu idan arras
Ura emen niri.
¿Nola izan diteque,
Arcumeac dio,
Baldiñ orain urte bi
Ez banintzan jayo?
Arrazoi dec, otsoac
Dio erantzuten,

Orainche asitzen nac
Contuan erorten;
Ire anaya uen,
Bai, ire anaya,
Oroitzen nac ni zala
Egun ura jaya.
Ez da, dio bildochac,
Orrelaco gancic,
Ez det, jauna, nie izan
Seculan anairic.
Ire amac orrela
Bear cian izan,
Erantzunaz, otsoa
Lañterca asi zan
Bildocharen ondotic,
Ta nai zuen eguin
Milla pusca gaiñoa
Lau letaguñaquin.
Eltzera dijoala
Bertan da azaltzen
Eiztari bal, eta du
Bi balaz pasatzen.
Onela quendu cizcan
Gure langoicoac
Otsoac bildocha
Jateco gogoac.





ECHE-ARRATOYA ETA SORO-ARRATOYA.

Soro-arratoi batec
 Eche-arratoya
 Ieusi zuen lodi,
 Guicén eta joya.
 Adisquidea, dio
 Bertatic esaten:
 Zure mardullasonac
 Guztiz nau arritzen;
 Nombait ongui ona da
 Daucazu biciya;
 Eguia esateco,
 Dizut embidiya.
 Nere bici modua
 Jaquin nai badezu,
 Erantzuten dio arc,
 Zurea esazu.
 Ni, dio Sorocoac,
 Celaiz-celai nabi l,
 Ale bat edo beste

Ote dezadan bill.
 Ascotan biurtzen naiz
 Zulora lerturic,
 Alecho bat bacarra
 Bildu gabetaníc.
 Orduan jaten ditut
 Belarren sustrayac,
 Eta izaten ditut
 Sabel-errabiyac;
 Nere bici modua
 Orra, adisquidea:
 Orain jaquin bear det
 Nie ere zurea.
 Arrazoya daucazu,
 Dio erantzuten,
 Eta asitzen zayo
 Onela esaten:
 Zure bi sayetsetan
 Det ongui ieusi

Ase eta betean
 Ez cerala bici;
 Arguia agniri da
 Baletic bestera,
 Negu onetan zoaz
 Goseac iltzera.
 Eroen contua da
 Nequez bicitzea;
 Zurrena neque gabe
 Tripa betetzea.
 Sinistatu nazazu,
 Nic, adisquidea,
 Oraindica ez daquit
 Cer dan necatzea.
 Bizquitarlean nago
 Beti ugüituric,
 Jan baño jan nayago,
 Eta ecin janic.
 Atoz icus dezazan
 Nola nie echea
 Goitic bera daucadan
 Janariz betea.
 An daucatzit ciucilie
 Gazta Flandescoac,
 Odolquiac, lucaincæ,
 Eta chorizoac.
 Bacarric nago, eta
 Nai nuque laguna,
 Igarotzeco pöcz
 Jostatzen eguna.
 Ozta soro-arratoyac
 Zuen au aditu,

Berecalaşe cion
 Atzetie jarraitu.
 Echera ciranean
 Elcarren ondotic,
 Sartu ciran despensan
 Catuen chulotic.
 Sorocoac ozta du
 Goratzen burua,
 Uste du icusitzen
 Duela cerua.
 ¿Cer da au? dio ojuca,
 ¡Au bai dala mauca!
 ¿Onelaco fortuna
 Munduan nore dauca?
 Pöcz eroturica,
 Trast, salto batean,
 Igo, eta jartzen da
 Lucainquen gañean.
 Jan eta jan ari da,
 Ecin ugüituric,
 Ez du inore icusi
 Alaco jaleric.
 Onela ari dala
 Sabela betetzen,
 Catuaren miauac
 Dirade aditzen.
 Aditu becin laşter,
 Eta salto bian,
 Ebecco arratoya
 Sartzen da cabian.
 Ura icusi eta,
 Guero sorocoa

Laſterca ondolica
 Argana diſjoa.
 Nai baño nequezago
 Sartu zan chulotic,
 Ceren sabela ceucan
 Lucaincaz beterie.
 Ieusten da laguna
 Icaraz betea
 Neque andiarequin
 Artzen astuasea.
 ¿Cer da, esaten dio,
 Cer da heldur ori?
 ¿Ceguertatzen zaic mu-
 Esan zadac niri. [till?
 Aspas eciñ arturic,
 Dio eranzuten:
 ¿Catuaren mianac
 Ez dituc aditzen?
 Badituc lau echean,
 Lauac eiztariyac,
 Oyec jan eizquidatec
 Nere bost anayac.
 Begnira zac nola nie
 Daucadan buztana,
 Erdiya larrutua,

Beste erdiya jana.
 Doi doya egun batez
 Nian igues egniñ,
 Contentu guelditu nac
 Onembesterequiñ.
 Gueroztic galtzen diat
 Osoro burua,
 Aditzen dedanean
 Catnen miana.
 Au enzun zuenean,
 Dio sorocoa:
 Maiz badira icara
 Gaur bezalacoac,
 Oa mutill nar badec
 Deabru echera,
 Nayago diat nie joan
 Sustrayac jalera.
 Gabaz irtenie joan zan,
 Esanaz bidean,
 Peligrotica libre
 Arquitu zanean:
 Obe diat nie ascoz
 Pobrezta paquean,
 Ez aberastasuna
 Icaren artean.



ESNE SALTZALLEA.

Nescachā bat cijoan
Plazara neguan,
Eseuan chanchilla ta
Caicua buruan.
Gorputz liraña zuen,
Guerriya chit mea,
Ileā erporaño,
Urre colorea;
Perla guisaco ortzac,
Aoa chiquiya,
Beguīac beltz andiac,
Ezpañā gorriya;
Ibillian inori
Ecer zor ez cion,
Itz batean, gendeac
Beguīratzen cion.
Lasterca bere buru
Cijoan itzquetan,

FAB. 2

Itz eguiten zuela
Manera onetan.
Esne au nereā det,
Ala aīlac esan dit,
Saldu ta diru asco
Niri emango dit.
Bereala beaīlut
Arraultzac erosi,
Sasqui bat bete arraultz
Ġzango det nosqui?
Uda berriya dator;
Maiz nere burna
Chitoz icusico det
Nie inguratua.
Eguiten diranean
Ollanda, ollasco,
Artuco det ayequin
Dirurican asco,

Erosteco ferian
Anrrera cherriya,
Beresitzen derala
Albait umaciya.
Ugari izan bait da
Chit aurten ezcurra,
Joaracico diot
Laster tripaz lurra.
Nola izango duen
Urdaya lodiya,
Artaco det onequin
Nie diru andiya,
Eta erosico det
Chalcho bat urriša,
Umeac eguin ditzan
Echecoen guiša.
Urte asco baño len,
Badet nie ustea,

Arquituco naicela
Ganaduz betea.
¿Ozta izango alda
Errian nescachic
Dolea nie adiña
Izango duenic?
Asmo oyce eguiten
Ari dan artean.
Irrištatzten zayozca
Bi oñac lurrean;
Adiyo aren esue,
Arraultz ta chitoac,
Adiyo cherri, chal ta
Dote guztizcoa.
Ascotan dirudite
Gure esperantzac
Osoro chacurraren
Gaber dico ametsac.



ASTOA ETA CHERRIA.

Asto bat bici oizan
Ucullu batean,

Eta cherri bat berriz
Aren bazterrean.

Cherriari astoac
 Cion embidia,
 Ceren ascoz ohea
 Zan aren bicia.
 Ori, esaten zuen,
 Dago ugüituric,
 Ez dezaque ecer jan
 Ez badu irünic;
 Ni berriz emen nago
 Gosez idiquiric,
 Majaderan ez daucat
 Lastoaren pişquic.
 Noicic bein baldin badet
 Millizatzen zaia,
 Iduritzen zat dala
 Orduan ezlaia.
 Goicetic arratsera
 Oi da aren lana,
 Tripa ecin jaso,
 Ecer ecin jana.
 Ni beti narabilte
 Arras zamaturic,
 Indarrae galdu eta
 Ecin igüituric.
 Atz eguiten diote
 Ari bizcarrean,
 ¡Maitechoa! esanaz,
 Jana ematean;
 Ni zamaren azpian
 Ez naute urriqui,
 Beaituzte egunean
 Neretzat maquil bi;

Cembat eta daucadan
 Indar guchiago,
 Ambat eta gañean
 Det golpe gueiago.
 Au oi zan astoaren
 Betico itzcuntza,
 Jaincoari esanaz:
 ¡Indazu laguntza!
 Ostegun guicen egun
 Deritzan goicean
 Golpeca asten dira
 Echeco atean;
 Esnatzen da astoa,
 Eta du icusten
 Araquiña barrena
 Deadarca sartzen,
 Esanaz: guacen, guacen
 ¿Non dago cherria?
 Nescamea, arturic
 Escuan pacia,
 Asten da idiquitzen
 Gaisoari eia.
 Irteten da cherria
 Doi-doya eietic,
 Artzen du araquiniac
 Belarrietatic,
 Eta ematen dio
 Urte bi baño len.
 Eriotza gogorra,
 Ceren dagoen guicen.
 ¡Norc esan astoaren
 Beldur laborria,

Noiz allegatuco zan
 Beraren aldial
 Burutic oñetara
 Icerdiz bustirie,
 An cegoan gaiSoa
 Chocoan iñillic.
 Irten zan bada noiz bait
 Gure araquina,
 Eta acabatu zan
 Astoaren miña.
 Orduan esan zuen
 Bere barrenean:
 ¡Jaincoari esquerrac
 Bici naicenean!
 Nic nere lagunari

Embidia nion,
 Nere patua opa
 Inori ez nion;
 Ez det nai iriñie,
 Baldin ill bear bada
 Orrela gazterie.
 Betoze nere gñera
 Amar milla maquill,
 Ascoz naiago det nic
 Onela zarric ill.
 Berdin icusia da
 Ez da atseguñie
 Mundu onetan inon
 Cerbait gabetanic.

BERRITSUA.

Tristan estudiante
 Guztiz beartsua
 Buru andicoa zan,
 Baña herritsua.
 Aberastu nai zuen,
 Gutici ona da,
 Baldin bide onetic
 Aberasten bada.
 Baña guchi dirade
 Galdetzen dutenac
 Bideac diran charrac
 Edo diran onac.
 Asten da gure Tristan
 Erriz-erri deitzen

Diela-abereai
 Itz eguin-arazten.
 Orra non bereala
 Daquien erreguec
 Cer abillidadea
 Daducan Tristanec.
 Bere-berealañe
 Deitzen du Madrilla
 Onen guizon jaquin-
 Guztizco abilla. [tsun
 Erregue asten zaio
 Pozturic esaten:
 ¿Omen daquie astoai
 Itz eguin-arazten?

Badiat bat echean
 Eta dec emea,
 Luzaro edan diat
 Nie aren esnea.
 Berari zor cioat
 Nere osasuna,
 Gueroztic uste diat
 Derala laguna.
 Orain ateraco dec
 Contua emendic
 Aren itza aditu
 Naico ote dedan nie.
 Tristanec dio: jauna,
 Da ezagutua
 Chit gogorra duela
 Astoac burua.
 Berorren mesedeac
 Amar urteetan
 Astoa enzungo du
 Ederqui itzquetan.
 Guclara joan ondoren
 Dator erreguea
 Zaquela bat escuan
 Ontz-urrez betea,
 Eta ematen dio
 Tristani, esanaz:
 Contentu izango nac
 Tristan, ire lanaz,
 Baldin iensten badet
 Amar urteetan

Nere asto maitea
 Nerequin itzquetan.
 Ez da dio Tristanec
 Predicadoreric
 Asto ori itzquetan
 Gaiinduco duenic,
 Gil aren adisquide
 Eta erritarra,
 An aditu ta ecin
 Idnquiric farra,
 Asten zaio esanaz:
 Deaurruz betea,
 ¿Orrela engañatu
 Beac erreguea?
 Igues eguintzac Tris-
 Lasterca emendic, [tan
 Osticoca ez badec
 Egon nai cincilic;
 Cergatic azqueneco
 Tristanen pagua
 Izango dec iltzea
 Emen urcatua.
 Gilcho, dio Tristanec,
 Guztiz dec lucea
 Escatu eta eman
 Diraten epea;
 Amar urte oietan,
 Contu epe oni,
 ¿Ez gaitue ilcoerregue,
 Astoa edo ni?

ABEREAC IZURRIAREQUIN.

Baso eta soroac,
 Celaia, mendiac,
 Abre illez ceuden
 Arras estaliac,
 Sartu citzaielaco
 Gaitz bat chit andia,
 Ceñari oi dioten
 Deitzen izurria.
 Lecu aietan baitzan
 Leoia erregue,
 Beldurrez gueldi cediñ
 Genderica bague,
 Deitu omen cituen
 Abere guztiac,
 Utzirica aldebat
 Bacarrie eriac.
 Joan ciraden lasterea,
 Alzuten lenena,
 Cein baiño cein araco
 Otezan aurrea.
 Muno baten gañean
 Leoia jarri zan,
 Eta andie ojua
 Onela asi zan:
 Nere seme maiteac,
 Da izugarria
 Gure artean sortu
 Zaigun izurria;
 Gueldito bearra naiz

Ni zuen erregue,
 Egun asco baiño len
 Inor ere bague.
 Zuei esateco,
 Da nere ustea,
 Onembeste bat gende
 Galtzen ez uztea.
 Izurri oni omen
 Deritza colera,
 Eta deitu zaituztel
 Guetia onera,
 Nola bait Jaungoicoa
 Dezagun ezitu,
 Eta colera gabe
 Gaitcen guelditu.
 Uste del, ezlitzeo,
 Aren mesedea,
 On dala gutaco bat
 Gaur emen iltzea,
 Erretzen degularie
 Guero aldarcan,
 Colerac utzi gaitzan
 Lembaitlen paquean.
 Nor dan gure artean
 Gaitzica guetia
 Jaio zanelie onontz
 Eguiten duena,
 Au da nere semeac,
 Ez daucat dudarie,

Daucana Jaungoicoa
 Chit asarraturic.
 Au illic aldarean
 Erretzen badegn,
 Bereala Jaincoa
 Eztituco degu,
 Guelditzen diralaric
 Gure pecatuac
 An goyen duda gabe
 Belico aztuac.
 Asi bedi bacoitza
 Esaten bereac,
 Adituric aurrena
 Osoric nereac:
 Beñere ez det izan,
 Aitortuco det nie,
 Aberez asetzeco
 Batere cupidic.
 Cecenac, beiac, aun-
 Eta basurdeac, [tzac,
 Bete izan dituzte
 Maiz nere esteac.
 Gaiztaqueria oïec
 Dirade nereac,
 Orain esango ditu
 Bacoitzac bereac.
 Ez jauna, ez, ojuca,
 Dio aceriac,
 Ez dirade oriec,
 Ez, gaiztaqueriac.
 Non nai beti mendean
 Bici dan gendeac,

Bazcatutzen oi ditu
 Bere erregueac.
 Cata molzac cionez,
 Bai ere otseac,
 Aiec jan oi ciluzten
 Artalde osoac.
 Asco alditan cion
 Berriz aceriac
 Ustu izan cituela
 Arc olloteguiac.
 Pecatuac esaten
 Bacoitza dijoa,
 Eta azquen azqueña
 Badator astoa.
 Arrantzaz asitzen da
 Bereac esaten,
 Eta modu onetan
 Ojuac equiten.
 Jauna, ni oroitzen
 Igande balcan [naiz
 Bazcatzen nebillala
 Goicetic larrean,
 Inon ere belarric
 Ecin arquituric,
 Eguin ez zuelaco
 Luzaro enrric,
 Sartu izandu nintzan
 Gari celaiean,
 Baña, jauna, eguiaz
 Zan uste gabea,
 Eta ecin gogora
 Zait etorri niri,

Jan nituen, edo ez,
 Burubat edo bi.
 Atera becin laster
 Itz oiee aotic,
 Aceriac ojuca
 Ez dago dudarie,
 Esaten du, ori da,
 Oriſeu da, ori,
 Emen sartu diguna
 Izurria guri;
 Bereala bear du
 Ancaz gora jarri,
 Aldarean dezagun
 Ederqui etzarri.
 Iduritu citzaion
 Ongui gendeari
 Bicia quendutzea
 Asto gaiſoari.
 Bereala astoa
 Guelditu zan illic
 Ez izanagatican
 Batere culparie.
 Erreguec inguruan
 Ceuzean muticoac,
 Nola ciran cata-motz,

Aceri, otsoac,
 Irri eguiten zuten
 Astoa iltzean,
 Ill eta ancaz gora
 Surtan elzartzean.
 Mundu onetan beti
 Indarra dutenac,
 Ez badirade ere
 Mutillic onenac,
 Esan oi da dirala
 Chit guizon prestuac,
 Estaltzen diralaco
 Aien pecatuac,
 Beste aldetie berriz
 Gende beartsua
 Ardit batengatica
 Oi da urcua.
 Baña guertatzen oi da
 Au gure artean;
 Bestela izango da
 An gora joatean;
 Ceren izango guera
 Guztioc an berdin,
 Naiz erregue emen izan
 Naiz izan arlequin.



CHICHARRA ETA CHINGURRIA.

Iduritzen citzaion
 Urriquirria
 Chicharrari auzoan
 Zuen chingurria,
 Ceren icuslen zuen
 Lertutzen lanean
 Dembora piſcachobat
 Ondutzen zanean.
 Ascotan esan cion,
 Ez irriz, benetan,
 Ez diat lanic eguin
 Nere egunetan;
 Eta uste diat nic,
 Nere muticoa,
 Lan eguiten duena
 Dala chit astoa.
 Cer, gibilili bear dec
 Beti arrastaca,

Ecin gari ale bat
 Carraiaturiza,
 Erori, eta alcha,
 Beti gira-bira,
 Eramatiagatic
 Ale bat cabira?
 Bici modu char ori
 Utzac, chingurria,
 Eguin zac nic eguiten
 Deraden guztia.
 Chingurriac jaquinic
 Gurasoetatic,
 Ecin bicico zala
 Eguin bague lanic,
 Chicharraren esanic
 Ez zuen aditu,
 Eta bere lanari
 Oi cion seguitu.

Bitartean chicharra
 Cijoan pasatzen
 Uda guzti-guztia
 Sasian cantatzen;
 Baña gaizqui jo cion
 Soñua cucuac,
 Uda joan eta zuen
 Atzeman neguac,
 Eta nola bait duen
 Copet itsusia,
 Joan ciran chichar can-
 Eta erausia, [ta
 Ceren bucatueria
 Udaco asea,
 Otzac ecarri zuen
 Berequin gosea.
 Chicharra guelditu zan
 Argala, umilla,
 Este cimurruaquin
 Eta erdi illa.
 Oroitzen da anzoan
 Badala cer jana,
 Dijoa arrastaca
 Chingurriagana,
 Eta esaten dio
 Doi doya argalez:
 Adisquidia, dizut
 Escatzen mesedez
 Zure gordaidutica
 Piñacho bat cer jan,

Nolabait negu beltz an
 Igaro dezadan.
 Icusi zuenean
 Ain argal chicharra,
 Chingurriac, eguiñaz
 Gogotica farra,
 ¡Ola! esaten dio,
 ¿Zu onontz chicharra?
 Cantari ona cera,
 Bearguille charra.
 Uda igaro dezu
 Erausian, cantan,
 Ni nebillen artean
 Lertzen lan eta lan,
 ¿Eta orain nai dezu
 Chingurri nequeac
 Bete ditzaten chichar
 Alferren esteac?
 Ez, ez orrelacorie,
 On da icustea
 Cer dan munda onetan
 Alfer izatea.
 Ni len necatu eta
 Banoa jatera,
 Zu gueldi egon cera,
 Zoaz cantatzera.
 Lagundu bear zayo
 Bearguilleari,
 Ez ordeba beñere
 Gende alferrari.



IGUELAC ERREGUE ESCATZEN.

Abere mot bacoitzac,
 Lengo demboretan,
 Erreguea bazuten
 Toqui gucietan.
 Gabetanica ceuden
 Iguelac bacarrie,
 Ceren ozta ciraden
 Irtelen loietie,
 Eta ez da atseguin,
 Naiz izan erregue,
 Bicitzea loipean
 Andie irten bague.
 Iguel gaiñoac ceuden
 Arras lotsaturie,
 Inore ez cielaco
 Eguiten casoric.
 Biltzen dira guciac
 Beren batzarrean
 Eta diote guacen
 Jartzera aurrean

Jupiter andiari,
 Eta esatera,
 Janna, galoz zugana
 Erregue escalzera;
 Abere mot bacoitzac
 Izanie berea
 Guc erenai guenduque
 Albalitz gurea.
 Jupiterrec, muguituz
 Noicie bein burua,
 Aditu omen cien
 Beren erregua,
 Far irria eguiñaz,
 Ceren ez cequiten
 Iguel choriburnac
 Cer escatzen zuten:
 Bada bici ciraden
 Elcarren artean,
 Cantatu eta josta,
 Ederqui paquean.

Esan omen cioten
 Beren Jaungoicoac,
 Ez zaitezlela izan
 Arren ain choroac;
 Ceren ez da munduan
 Zori onagoric,
 Nola dan bicitzea
 Buru gabetanic.
 Badezute non bici,
 Cer jana, paquea,
 ¿Certaco nai dezute
 Orain erreguea?
 Gaiztoac bear dute,
 Ezdago dudarie,
 Elcar ill ez dezaten
 Buru gabetanic,
 Baña izanic ona
 Zuen familia,
 ¿Cer deabrutaraco
 Du aguintaria?
 Jauna, eranzun zuten,
 Badute besteac,
 Eta lotsatzen gaitu
 Guc ez izateac;
 Ez guera guchiago
 Nosqui ayec baño;
 Lotsarie asco izan
 Degu oraindaño.
 Ori orrela bada,
 Dio Jupiterrec,
 Faltarie ez dizute
 Eguingo erreguec.

Au esan ondorean,
 Orra non batetan
 Cerutic cinguirara
 Cerbait erortzen dan,
 Ematen duelarie
 Alaco golpea,
 Non galtzen dute arras
 Iguelac cordea.
 Piſca bana icara
 Pasa ondorean,
 Eta ezagüera
 Etorri zanean,
 Lasterca an dijoaz
 Sartzera lembaitlen,
 Guchienaz cana bi,
 Loiean barrenen.
 Zorizi egun ayetan
 Ez zan bat bacarrie
 Loietic irtetera
 Atrebitzen zanic.
 Noizbaitirteten da bat,
 Eta dio, *tat, tat,*
 Erreguetzat diaga
 Egur pusca andi bat.
 Icusi zutenean
 Ciola eguia,
 ¡Norc esan ayen lotsa
 Eta errabia!
 Badijoaz lasterca
 Jupiterren billa,
 Eta esaten diote:
 Jauna, esquer milla;

Gaur bidaldu diguzun
 Erregue prestua,
 Da itsua la gorra,
 Gañera mutua:
 Beste bat nai guenuque
 Ernaia, bicia,
 Gendiari aguintzen
 Ongui icasia.
 Zoazte ortica, zoazte,
 Die eranzuten,
 Berdin ez daquizute
 Cer darabilzuten.
 Bidaltzen die bada
 Beste erreguea,
 Ceña zan amar cana
 Luce zan suguea.
 Cinguiran sartu eta
 Asi zan batetan,
 Iguelai jarraica,
 Arrapa eta jan.

An dijoaz iguesi
 Bera eta gora,
 Batzuec loi azpira
 Besteac campora.
 Madaricatzen dute
 Guztia erregue,
 Obeto ciralaco
 Aguintari bague.
 Onela oi dirade
 Choroen contuac,
 Ez die farra gaizqui
 Eguiten munduac.
 Ongui gueran orduan,
 Obeto nai degu,
 Galdu ta guero ona
 Ezagutzen degu;
 Baña nola orduan
 Ez degun prochuric,
 Ez oi zaigu guelditzen
 Damua besteric.



ASTO BURU-GOGORRA.

Asto bat ebillen bein
 Bazcatzen larrean
 Bururaño estaltzen
 Zuen belarrean.
 Ain cegoan contentu
 Gure aberea,
 Non dagoan Chinaco
 Emperadorea.
 Belarrez ase, eta
 Eguinaz arrantza,
 Guzlia zan arentzat
 Festa, eta dantza.
 Lepoa luzaturic,
 Bi belarriac zut,
 Arrantzaca icusten
 Derala nste dut.
 Onela dabilleta
 Batetic bestera,
 Oroitu gabetanic

Joateaz echera.
 Noieie bein luce-luce
 Etziñie lurrean,
 Tripaz gora jarririe,
 Zancoac airean,
 Orrontz-onontz giraca,
 Zan gorputz guzlia
 Guelditzen citzaiola
 Autsez estalia,
 Acabatzen zuela
 Azquenean festa
 Trompeta joaz, nola
 Esan bear ez da;
 Onela dabilleta
 Astoa mendian,
 Nausia icusten du,
 Ez chit urrutian,
 Deituaz, pocho, pocho,
 Alorquit onera,

Elsaiaac dijoazquic
 Or ire gañera;
 ¿Ez aldituc aditzen
 Trompet-atabalac,
 Eta chistuca orronz
 Dijoacen balac?
 Aitor onontz lasterca,
 Edo aiz galdua,
 Ucolluan an danac
 Toqui segurua.
 Pocho sasi tartean
 An dabil bazcatzen,
 Nausiari casoric
 Ez dio eguiten.
 Egur bat artu eta
 An dijoaquo,
 Eta burutic bera
 Erasotzen dio,
 Esaten diolaric,
 Esquer gabecoa,
 ¿Nic oju eguiñ eta
 I iguesi oa?
 Asto madaricatu,
 Nar, buru gogorra,
 ¿Noiz ezquero eguiñaiz
 I neretzat gorra?
 ¿Ez dituc bici ire
 Aita ta aitona,
 Ezagutzen zutenac

Beren zoriona!
 Guacen, guacen emen-
 Guacemac echera, [dic,
 Mereci ez dec baña,
 Otea jatera.
 Astoac nausiari
 Dio eranzuten,
 Pensamentu bat orain
 Nengoan eguiten.
 ¿Arrapatzen banaute
 Ni emen elsaiaac,
 Gaitzie eguingo ditet
 Aien asta-zaiac?
 ¿Edo aien mendea
 Guelditzen banaiz ni,
 Iñico dizquitet
 Gañean chalma bi?
 Ni bezalacoenzat,
 Nere nagusia,
 Nere ustez etsaia
 Da mundu gucia.
 Patu gaiztoarequin
 Dancan bat jaio,
 An edo emen bici
 Oro-oro bat zaio;
 Eta guerra demboran
 Ecer ez izanic,
 Ez oidu aberatsac
 Duten icararic.



BELEA ETA ACERIA.

Zur aritz luce baten
 Tontor-tontorrean,
 Bele bat guelditu zan
 Joan dan egunean.
 Bere mocoan ceucan
 Gazta bat guria,
 Borda leio batetic
 Ebatsi berria.
 Aceri bat irten zan
 Arcaitzen artelic,
 Eta igarotzen zan
 Zur aritz azpitic;
 Osta zuen gaztaren
 Usaia sentitu,
 Gora beguiratuaz
 Bertan zan guelditu:
 Icusi zuenean
 Ain gazta guria,
 Cincillica cerion
 Aotic lirdia.
 Gueldi-gueldi cegoan

Zur aritz azpian,
 Gazta nai, eciñ izan,
 Zalez errabian.
 Bere barrenen cion,
 ¡Eciñ gora igo!
 Igotzen banaiz ere
 Ez liquec baliot!
 Ceren nic nai banuque
 Argana gora joan,
 Igues eguingo liquec
 Bereala egan.
 Cerbait beste gauzaric
 Beaiat asmatu,
Tat tat orainchen ber-
 Zaidac gogoratu; ¡tan
 Eciñ obeagoco
 Pensamentuba dec,
 Sei minutu baño len
 Gazta nerea dec.
 Agur adisquidea,
 Dio betic deitzen,

Zure edertasunac
 Nan enamorutzen;
 Moco oria dezu,
 Luma beltz-urdiña,
 Beguia berriz galant
 Argui eta fiña,
 Itz batean cerade
 Ain guztizeo joia,
 Non arquite dileque
 Beste bat doi-joia.
 Sinistatu nazazu:
 Dudarica bague,
 Egaztien artean
 Ciñaque erregue,
 Ceran becin ederra
 Bacen du cantua;
 Ala dezun, edo ez,
 Or dago contua.
 Belec aditzean
 Lausengacho ura,
 Sentitzen du beregan
 Cantatzeco gura.
 Ozta idiquitzen du
 Gaiñoac inocoa,
 Bereala lurrera

Gazta an dijoa.
 Aceriac algaraz
 Omen cion deitu:
 Orren canta ederric
 Ez det nic aditu.
 Orain nic gazta jaten
 Deran bitartean,
 Goza zaitez zu cere
 Arrotasunean;
 Jaungoicoac dizula
 Luzaro osasuna,
 Zure cantu ezlia,
 Zure edertasuna;
 Contentu izango naiz
 Ni nere aldetic,
 Tripa betetzen badet
 Maiz zure mocotic.
 Au esan, eta joan zan
 Bere gaztarequin;
 Belea gueldita zan
 Sabel utsarequin.
 Lausengarien itza
 Duenac sinisten,
 Onelacoche chalmac
 Ditu eramaten

OLLARRA ETA ACERIA.

Ollar bat cebillen bein
 Faza ederrean,
 Soroa jorratuaz,
 Jaten goiz batean.

FAB. 3

Cacaraza eguiñaz,
 Orra non batetan
 Igotzen dan ollarra
 Arbolera egan.

Beguirā negoquion
 Ni bazter batetic,
 Ecin beguiac quenduz
 Inolaz argandic.
 Gain-gañcan cegoan
 Jarriric ederqui;
 Ollar ederragoric
 Ez det nic icusi.
 Atzapar bat bazuen
 Cana batecoa,
 Atzeco azcazala
 Cenz adarrecoa;
 Bullarra chit lodia,
 Lepoa laburra,
 Begui ori-gorriac,
 Mocoa macurra;
 Atzeco lumac jo nai
 Cioten burua,
 Cincilie goitic-bera
 Eguiñaz arcua;
 Galdor gorri andia
 Cencan ain zucena,
 Non artan icusten zan
 Beraren quemena.
 Aren luma ederrac
 Eguzquiac joric,
 Distiatulzen zuten
 Guztiz urrutitic
 Alaco moduan, non
 Ez nezaque esan
 Gure ollar ori cer
 Colorezcoa zan;

Ain laster cirudien
 Cillarra, urrea,
 Non perla, esmeralda,
 Non diamantea.
 Ari beguirā ecin
 Nintzan ni aspertu;
 Ez pensatu derala
 Ecertan edertu.
 Oraindie sei minuta
 Igaro baño len,
 Aceri zar andi bat
 Orra non datorren.
 Icusten da ollarra,
 Guelditzen da bertan,
 Betic gora asten zaio
 Onela itzquetan;
 Biba, biba, maitea,
 Añsen bai berria,
 Paqueac eguin dira;
 Gaur mundo guztia
 Bici diteque aisa,
 Beldur gabetanie;
 Inore ez du aurrera
 Izango etsairic;
 Calu eta chacurrae,
 Otso, arcumeac.
 Aceriac, ollarrac,
 Guera adisquideac.
 Jachi zaitez lasterca,
 Beldurric ez izan,
 Elcarri lastanchobat
 Beaiogu eman.

Ollarrae bereala
 Dio eranzuten:
 Zau de piſca-piſca bat,
 Orra non datocen
 Iru aceri-chacur,
 Orra otadian
 Laſterca lau oñean
 Lertzeco zorian.
 Ez dago ez dudarie,
 Diozu eguia,
 Oiee dacarte ſcurqui
 Paqueen berria.
 Aditu becin laſter
 Chacurren icena,
 An dijoa aceria
 Alduen lenena.

Zau de, zau de, ollarra
 Aſten zaio deitzen,
 Bereala nazazu
 Emendie jachitzen,
 Ez dago guelditzeco
 Gure aceria,
 Badirudi igneſi
 Dijoan erbia.
 Guztiz preſa det, dio,
 Bereala or naiz,
 Gue onelaco preſac
 Oi ditugu chit maiz.
 Guztiz aſco jaquiña
 Zan aceri zarra,
 Baña ollarra ere
 Ez bide zan narra.



AUNTZAC ETA AQUERRAC.

Munduan embidia
 Batac-beſteari
 Izaten oi diogu
 Chit maiz, edo beti.

Auntzac icuſirica
 Cirala aquerrac
 Gendeen ara-bera
 Guztizeo ederrac,

Eta aiec eraguin
 Oi zutela farra,
 Falta eitzaielaco
 Cincillie bizarra,
 Joan omen ciran beren
 Jaungoicoagana,
 Esanaz: jauna, gatoz
 Gaur berorregana
 Adierazotzera
 Ger lotsagarria
 Dan gutzaz eguitea
 Gendeac irria,
 Cergatic cocotzean
 Ez degun bizarrie,
 Aquerren motacoac
 Gu ere izanie.
 Jauna, gure cocotza
 Bizarrez belea
 Guelditzeco asco da
 Zue nai izatea;
 Esperantza daucagu
 Echera emendie
 Biurtuco guerala
 Bizarrez jantzirie.
 Jaungoicoa onetan
 Cegoan glorian
 Auntzac enzunaz, irriz
 Lertzeco zorian;
 Eta esaten die:
 Zoazte emendie,
 Ez esan orrelaco
 Choraqueriarie;

Baña negarrez auntzac
 Omen ciran asi,
 Arat-onat ibilliz
 Beca sasiz-sasi.
 Cupitarie orduan
 Jaincoa guztia,
 Eta artizen zuela
 Manera ezlia,
 Orra, esan cioten
 Bertatic bizarra,
 Munduac eguingo da
 Orain znez farra.
 Contrara guertatzen
 Gaurco egunean, [da
 Aquerrac auntz nai
 Izan gucienean: [dote
 Guizonac andre moten
 Munerac arturie,
 Icusten dirade inai
 Chimu biurturie.
 Auntzacauntz beaizan,
 Aquerrac aquerra,
 Guizonac indartsua,
 Andreae ederra;
 Bestela buruz hera
 Joango da mundua,
 Eta gueldituco da
 Betico galdua,
 Ematen zaiolarie
 Culpa Jaincoari,
 Norc eman bearrean
 Bere buruari.


LEOIA ETA CHIMUAC.

Leoi bat irten zan bein
 Zulotic eicera,
 Gosez irriquituric,
 Tripa betetzerá;
 Alferric ibilli zan
 Goiz santu guztian
 Ecin topaturica
 Eicica mendian;
 Muno baten gañera
 Igo ondorean,
 Necaturic cegoan
 Lo bete betean;
 Orra non bat-batetan
 Chimu irrintziac
 Igarotzen diozean
 Bere belarriac.
 Esnatzen da saltoan,
 Jartzen da beguira
 Irrintzia datorren
 Aldeco mendira;
 Begui zorrotza zuen,
 Urru egonarren,
 Eiza icsitzen du
 Basoan barrenen.
 Badijoa poliqui
 Tripaz lurra joaz,
 Istua dariola
 Jateco gogoaz.
 Alderatu zanean

Baso barrenera,
 An dijoaz chimuac
 Arbolen gañera.
 Amorratutzen zaio
 Chalma andi onequin;
 Gosez irriquituric
 Ez daqui cer eguin;
 Artzen du chimu batec
 Escuan ezeurra,
 Tiratu eta dio
 Odoltzen sudurra;
 Beste batec ausitzen
 Du berriz egurra,
 Eta zauritzen dio
 Chit bizcar ezurra;
 Anca alchata eta
 Chacurraren guisa
 Eguiten dio batec
 Zar-zar goitic piša;
 Azquenic beste batec,
 Jasoric buztana,
 Eguin cion gauzabat
 Esaten ez dana.
 Onela cital ayec
 Leoi indartsua
 Uzten dute burlaca
 Arras lotsatua.
 Burua macurturic
 Badago leoia,

Ez dezaque irichi
 Arbolaren goia.
 Urgunca badijoa,
 Bide bazterrera,
 Etziñic eguiten da
 Illaren papera.
 Chimuai, icusiric
 Odola isurtzen,
 Eguiazqui il dala
 Zaye iduritzen.
 Bere-berealañen
 Chimu familia
 Goitic-bera saltoca
 Jaisten da guztia;
 Inguratutzen dute
 Illaren gorputza,
 Algaraca diote:
 ¡Au triparen utsa!
 Balac eguiten dio
 Ortzca belarrritic,
 Besteac tiratutzen

Dio buztanetic:
 Ori ecer ez dala,
 ¡Au bai ausarcia!
 Larrutu nai diote
 Iruc epurdia.
 Alchatzen da batetan
 Leoia lurretie,
 Ez zayo bat itzultzen
 Dagoan leutic;
 Itzen ditu guztia
 Ortzaz, atzaparraz,
 Eta buztanarequin
 Ezquer-escui joaz,
 Utzitzen duclarie,
 ¡Cec negargarria!
 Lurra, zan becu zabal
 Chimuz estalia.
 Argatic esan oi da,
 Elsai aguiria
 Ez dala ain gaiztoa
 Non dan estalia.



EULIAC.

Abarasca batean
Cegoan estiac
Beregana cituen
Millaca enliac.
Jan baño jan naiago,
Nabarbenquerian
Cebiltzan triparaño
Sarturic ezlian.
Azquenean guztiaç,
Oñac itsatsiric,
Bertan guelditu ciran
Ase eta illic.

An eguiten balute
Enliac bacarric,
Ez itzaque, cristabac,
Cer izan penaric;
Baña izan oi dira
Guizonen erdiac,
Batznec tripazaiac,
Besteac ordiac:
Eta iltzen oi dira
Gaztetasunean,
Bici nai dutelaco
Ase ta betean.

SUGUEA ETA NECAZARIA.

Guizon bat cijoan bein
Celaitic echera,
Goiz guztian laneguin,
Eta bazealtzera.

Icusten du bidean
Et,iñic suguea,
Otzac erdi illica,
Corderic gabea;

Cupituric sartzen du
 Gaiñoac colcoan,
 Ango beroarequin
 Pizteco asmoan;
 Echera joan zaneco,
 Suguca asi zan
 Colcotica campora
 Atera nairican:
 Campora botatzeco
 Guizonac artzen du,
 Eta sugne gaiztoac
 Ortzea pozoitzen du.
 ¡Orra esquer ederrac!
 Citalen escutic
 Ez du izango inore
 Beñere gauz onic.

Illa bete baño len
 Sugne ura bera,
 Olzac icaraturic
 Dator sucaldera.
 Ojuca asten dira
 Echeco guñiac,
 Jarraitutzen diote
 Morroi-nagusiac;
 Sartzen da nculluan,
 Badabiltza billa,
 Arquitzen dute eta
 Uzten dute illa.
 Citalqueriac ez du
 Beñere gauz onic,
 Eta inore ez du nai
 leusi citalic.

ARRANTZALEA ETA ARRAYA.

Ascotan oi bezala
 Joan zan ibaiera
 Bein batean guizon bat
 Arrantz eguitera;
 Oza amuaz zuen
 Ur gaña iculu,
 Arrai chiqui pollit bat
 Zuen arrapatu.
 Bacebillen cincilic
 Saltoca amutic,
 Baña ez zan inolaz
 Igues eguiteric.
 Etsi zuen orduan

Chit amorraichoac,
 Esaten omen zuen
 Amutic gaiñoac;
 ¡Certaco nazu zue ni
 Chiqui char gaztea?
 ¡Nola nai dezu zure
 Tripa betetzea?
 Urte bico ibaian
 Utzitzen banazu,
 Andi eta guicena
 Atzemango nazu;
 Orain berdiñ, eguia
 Garbi esateco,

Ez naiz aguintarte bat
 Zuri betetzeco.
 Amorraichoac zuen
 Ustez arrazoya;
 Guero izango zuen
 Obea sasoia;
 Baña arrantzaleac
 Escuan arturic,
 Eranzun omen cion:
 Aurrecoelatic
 Chit errepain eder bat
 Icasi nian nie:
 On dec ic aditzea
 Gaor nere aotic:
 Obea dec escuan
 Seguru choria,
 Ez airian dabillen
 Egazti andia:
 Oaquit paderara,
 Oaquit iſillie,
 Esperantzac ez oi die

Betelzen triparie;
 Perregill-tipulaquin
 Olio tartean
 Igari eguingo dec
 Pregitu artean.
 Arrantzalearentzat
 Ez da cer esanic,
 Ceren guizonarentzat
 Jauna ala nairic,
 Dirade abereac,
 Chiqui ta andiac;
 Baita ere arraiac,
 Eta egaztiac;
 Bestela izango zan
 Chit cupigarria
 Emen icusten degun
 Amorraí chiquia;
 Gaizqui dirudiena
 Da arrantzalea,
 Gaiſoaz far-eguiñaz
 Ala egotea.

LEOIA ZARREZ ILTZEN.

Leoi guztiz andi bat,
 Ez ill, bai illean,
 Luce-luce etziñic
 Cegoan lurrean:
 Urteen zamac ceucan
 Ecin igñitaric,
 Bada ez zan arquitezen
 Argan beste miñic.

Orruaz mendiz-mendi
 Zanean len biei,
 Abereac cebiltzan
 Argandic iguesi:
 Bat bacarrica ez zan
 Guztien artean
 Ichorongo cionie
 Inolaz bidean.

Orain ieusirica
 Etziñic lurrean,
 Esan deran bezala,
 Ez ill. bai illean,
 An dijoaz lasterca
 Chiqui ta andiac,
 Eta ito nai dute
 Gaiñoa guztia.
 Citalen contua da,
 Gaiñoa danari

Eguin nai izatea
 Farra eta irri.
 Guizon prestuac ez du
 Onela pensatzen,
 Gaiñoenari dio
 Gueyena laguntzen.
 Onetan nai dutenac
 Artu lecioa,
 Iracurri bezate
 Ebangelioa.

ARTZAIA ETA ARDIAC.

Atozte onontz laster,
 Atozte, anaiac,
 Deadar eguiten du
 Perucho artzaiac;
 Otso andi bat dator
 Mendi oieci bera,
 Zucen zucen onera,
 Ardiac jatera.
 Badijoaz anaiac,
 Bi chispa arturic,
 Beldurrez gneldi dedin
 Ardi gabetanjic.
 Allegatzen dirade
 Lertzeco zorian,
 Eta ez da agueri
 Otsoric mendian;
 Biurturic badande
 Soseguz echean,
 Orobat guertatzen da

Biaramonean,
 Bigarren chalmac
 [dauzca
 Chit ereztaturic,
 Urrengoan ez dute
 Eguiten casoric.
 Orduan eguiatzqui
 Otsua jachi zan
 Menditic artaldera,
 Eta an asi zan
 Ardiric galantenac
 Itzen eta jaten;
 Eta lastima zana,
 Artaldea galtzen.
 Guezurra esan zuen
 Bi bider artzaiac,
 Eta ez cioten nai
 Sinistu anaiac.
 Guezurtiac eguia

Baldin badu esaten,
Guezurtia dalaco
Ez zayo sinisten;
Onela eguiten du

Beretzat caltea,
Ou da beti eguia
Non-naiesatea.



OTSOA ETA CIGOÑA.

Jaquiña da cigoña
Dala egaztia,
Lepa luce, moco me,
Andi, beltz-zuria.
Otso bat cegoan bein
Arcume bat jaten,
Eta ezur bat zaio
Eztarrian sartzen.
Itotzera cijoan
Ecin aterarie,
Ez ceucan inondica
Erremedioric.
Cigoña bat gañetic
Zan egan pasatzen,

Otsoa inciriaz
Asten zaio deitzen;
Icusten du cigoñac
Aoa zabalic,
Inolaz ere ecin
Asnasa arturic;
Jachitzen zaio, eta
Ultziric beldurra,
Atera bide cion
Mocoaz ezurra.
Cigoña pocez dago
Beteric guztia,
Ichoroten otsoac
Zor dion saria,

Atera zuelaco
Estutasunetic,
Bada gueldituco zan
Bestela itoric.
Icustean cigoiñac
Cerbait zuela nai,
Otsoac esan cion:
Adizazu, auai;
Bazoazque emendie
Poez, contalzera
Osorica lepoa
Dezula atera
Gaur goicean, maitea,
Zuc nere aotic,
Estarrian mocoa
Sartu ezqueroztie.

Ez dauca zori on an
Nai duen guztia,
Bacarric eman dizu
Nere estarriac.
Errepañac oi dio
Eguin-ezazu on,
Eta eguin-ezazu
Ez dauquizula non.
Otso gaiztoa beti
Gure igues dabill,
Beldurrez ez dezagun
Atzeman eta ill;
Eta cigoiña berriz
Bici da gurequin,
Ceren ez dizalogue
Inore gaitzie eguin.



CHOARREA ETA ERBIA.

Arrano batec zuen
Erbi bat atzeman,
Eta ceucan itotzen
Bi atzaparretan;
Choaerre batec, ustez

Toqui segurutic,
Oju eguiten dio:
Esaten ez dec ie
Ez dala lur gañean
Arquitzen mutillie,

Lasterca i aimbat
Joan dilequeenie?
Orain &certan ago or,
Erbichoa, gueldi,
Orren mutill ariña
Aicen ezqueroz i?
Onela itz eguiten
Dion bitarlean,
Gabiroi bat gañera
Dator bat balean;
Artzen du choarrea,
Aren alzaparrac
Quentzen diozca here

Burla eta farrac.
Inore mundu onetan
Ez dezaque esan,
Ur onelatican nie
Ez det bear edan.
Usteric guchiena
Guc degun orduan
Arquitu oi guerade
Besteen lecuán.
Argatican beñere
Zori-gaiztocoaz
Ez degu egon bear
Farrac eta burlaz.




ITURRICO ORIÑA.

Nequez, baño arquitu
Zuen iturria
Orin batec; il nairic
Ceucan egarria.
Edan zuen orduan,
Gañoa zan ari

Urean beguiratzen
Bere buruari;
Ez da cer farrie egu
Iracurtzalleac,
Bacerate benturaz
Nescacha gazteac;

Jaquin bear dezute
 Gaur dan egunetic
 Ez duela oriñac
 Beste ispilluric.
 Guztiz ederra dala
 Zaio iduritzen,
 Batez ere adarrac
 Dute chit choratzen;
 Baña ditu arquitzen
 Aren mesedeac
 Chit ichusiace bere
 Zanco luce meac.
 Zanco laburragoac
 Baldin babiluque,
 Nere pareric, cion,
 Inon nie ez noque.
 ¡Ah! eman bacizquiran
 Gure Jaungoicoac
 Edoquichiagoac
 Nere bi zancoac!
 Onela dagoala
 Mar-mar iturrian,
 Zangac aditzen ditu
 Ez chit urrutian,

Laišterea asitzen da
 Mendira igotzen,
 Zacurrae ondolica
 Diote jarraitzen.
 Igues eguin duela
 Uste duenean,
 Guelditzen da batetan
 Otadi batean,
 Lotu ciozcalaco
 Bere bi adarrac
 Otetican-otera
 An cegoan larrac.
 Zacurrae gañeratzen
 Zaizca gaišoari,
 Ill eta bertan uslen
 Die nausiari.
 Orra adar ederrac,
 Zanco itsusiace,
 Oiee chit onac eta
 Aiee galgarriac.
 Choroac engañatzen
 Oi ditu ichurac;
 Ez ordece beñere
 Centzua dutenac.



SUGUEA ETA LIMA.

Ortzea ari eitzaiou
 Suguea limari;
 Limac esaten cion:
 Alferric aiz ari,
 Ez die ecer balio
 Ire aleguiñac,
 Camustueo dizquiat
 Ortz eta aguiñac.
 Casoric eguin gabe
 Ari zaio ciñez,
 Ez at dio utzico
 Ortzetaco miñez.

Berandu baña noiz bai
 Duque ezagutzen
 Ortzac dijoacela
 Guztia camusten.
 Uzten dio limari
 Chit damuz, esanic:
 Ascoz indar gueiago
 Nic baño dauca ic.
 Eroqueri andia
 Oi dec nerequico
 Aculloa jotzea
 Bortizqui ostico.



ADISQUIDE BI ETA ARTZA.

Adisquide andi bi
 Dijoaz bidean,
 Elcarrequin ilzquetan
 Umore onean:
 Artz andi bal zaiole
 Basotie irteten;
 Icarac arbolara
 Bata da igotzen,
 Bestea guelditzen da
 Gaiſoa bacarrie,
 Artz andiari ecin
 Arpegui emanie.
 ¿Cer eguiñ onelaco
 Estutasuncan?
 Illa balitz bezala
 Jartzen da lurrean:
 Nola artzac ez duen
 Gorputz illic jaten,

Usai eguiñ ondoren
 Da aurrera joaten.
 Bereala jachitzen
 Da arbolacoa,
 Eta lagunagana
 Lasterca an dijoa:
 Adisquidea, dio,
 Chit det nie atseguin
 Zu emen arqutzea
 Osasunarequin;
 ¿Cer icarac ditudan
 Zugatic eraman,
 Beldurrezzu noiz artzac
 Bear cinduen jan!
 Isillie belarrira
 Dizu arc itz eguiñ;
 Cer esan ote dizun
 Nai nuque nie jaquin.

Ara cer esan diran
Artzac belarrira:
Munduan adisquide
Mota asco dira;

Ez dezu artu bear,
Jaquizu gaurdandic,
Zure adisquidetzat
Guizon beldurtirie.



ARCUMEA ETA OTSOA.

Bildots guicen-guicen
Dago arteguian, [bat
Be eguiten duela
Amaren ansian;
Belar išpi bat ez zan
Aren tripan sartzen,
Iru ardic esnea
Cioten ematen.
Beguir dagoala
Ate cirritutic,
Aguertzen zaio norbait
Campoco aldetic;
Artzaia zala nste
Zuen lembiciar,
Guero icusi zuen
Otsoa sasian.

FAB. 4

Asten zaio ojuea
Barrendic esaten:
Jaquin beazu preso
Naucatela emen;
Au onela ez balitz,
Emendic irtenic,
Ez nezaque nie utzi
Otsoaren antzie.
Otsoac itzentza au
Aditzearequin,
Dio: ez del prochuric
Izango onequin;
Seguru dagoela
Au da señaica,
Nitzaz barrendic farraz
Burla eguitea.

Izaten oi da guizon
Chit icaracoya

Toqui segurutican
Guztiz fanfarroya.

URDALLA ETA GORPUTZAREN BESTE PARTEAC.

Ao eta beguiac,
Oñ eta escuac,
Urdallarequin ceuden
Chit asarreluac;
Beguiac esan zuten,
Gu gau eta egun
Or gabiltza jana non
Icusico degun.
Aoac cion berriz,
Nere ortz-aguiñac
Camusturic daucatzi
Lan asco eguiñac;
Oñac esaten zuten,
Naiz ez izan gura
Joan bear degu beti
Jana dan lecura:
Azquenean escuac
Ceuzean necatuac
Beti-betico eciñ
Jan ala bilduac:
Guztiac queja eiran
Urdalla bacarric
Cegoala lanican
Eguin gabetanic.
Eguiten dute junta
Edo balzarrea,
Ceña izan omen zan

Guztiz asarrea,
Eta bucatzen dute
Esatearequin:
¡Ez degu gure gueyago
Bear lanic eguiñ!
Batac jan, besteac lan,
Da croqueri;
Urdallac oi darama
Gure lan guztia.
Esan zuten bezala
Badande gueldiric
Bi egunian lanic
Eguin gabetanic.
Asten zaie orduan
Aitutzen indarra,
Urdallac barrendican
Eguiten du farra.
¿Cerdan? esaten dute,
¿Cer zaigu pasatzen?
Indarra piñca bana
Ari zaigu juaten.
Orduanche esaten
Diote urdallac:
Lengo antzie ez ditez
Gaur gure masallac.
¡Nola naizute izan
Ni gabe indarrie,

Zuec bildulacoa
 Urtutzen badet nie!
 ¿Ez dezute icusten
 Ortiz eta aguiñac
 Errot-arri guisara
 Dandela eguiñac?
 ¿Oyec chetzen dutena
 Nie derala urtzen,
 Eta guero guztioe
 Guerala mantentzen?
 ¿Ezbadet nie urtutzen
 Egunoro jana,
 Zuen neque guztia
 Dala alfer lana?
 Orra nola egun bi
 Osta igarone,
 Zaudezten indar-gabe
 Eta erdi-illic.
 Arrazoi au aditu
 Eta ondorean
 Guztia sartu ciran

Berriz batzarrean:
 Deitzen dute urdalla,
 Dijoa lasterca,
 Artzen dute erdian
 Emanaz besarca,
 Eta esanaz: orain
 Diagu aitortu,
 I beciñ mutitt latzie
 Ez dec iñon sortu.
 ¡Nore esau cezaquean
 Ezcuto lana
 Zala gorputzarentzat
 Bearrena zana!
 Munduan guchiena
 Uste dan personac
 Eguiten oi dituzte
 Lanic bearrenac,
 Eta icus dezazun
 Dala au eguia,
 Iracurri ezazu
 Urrengo ipuia.



JAQUINTSUNA ETA NECAZARIA.

Necazari batec du
 Guizon bat icusten
 Liburua escuan
 Eta pasiatzen.
 Biyac elcarri zaizca
 Asitzen itzquetan,
 Lena necazaria
 Manera onetan:
 ¡Ongui ona da, jauna,
 Berorren bicia;
 Obe du ez dan jayo,
 Ah, necazaria!
 Gue eguin bear degu
 Urte guztian lan,
 Beoc bici ditecen
 Pasca eta jan.
 Munduco gauzac dira
 Ongui desberdiñac
 Izan arren guztiac
 Jaincoac eguiñac.
 ¡Certaraco dirade

Beron liburuac,
 Ez bada nastutzeco
 Alferren buruac?
 Quendu bear liteque
 Chit alferqueria,
 Orduan guenuque gue
 Lanaren erdia.
 Gueroztica guiñaque
 Ascozaz obequi,
 Ez liraque izango
 Beroc ere gaizqui.
 Adisquidea, dezu
 Ederqui itz eguin,
 Eranzun cion, baña
 Beardezu jaquin
 Ez daudela munduan
 Gauzac ain desberdin,
 Eta bacequiela
 Jaincoac cer eguin.
 Buruac eguiten du
 Lanican gueiena,

Iduririe necatzen
 Dala guchiena,
 Eta esana dago,
 Baldin bada abilla,
 Buru batec balio
 Dituela milla.
 Esan zadazu niri
 Zuc, necazaria,
 ¿Nore eracutzi zuen
 Ereiten garia?
 ¿Nore elorri churian
 Sagarra chertatzen?
 ¿Nore sagar-tolareac
 Zur-olez eguiten?
 ¿Nore sortuac dirade
 Aitzurra, goldea,
 Laiac, eta bostorlza,
 Eta besabea?
 Zu ocan zurcungaz
 Zandenean lotan,
 Norbaitec bere guelan
 Asco gaberditan
 Lau bider nastu oi du
 Gogotic burna,
 Escuetan arturic
 Bere liburua.
 Asmatzen badu cer-
 Guertatu oidana, [bait,
 Guizonac eguin dezan
 Errazago lana,
 Gueiago eguiten du
 Buruz guizon onec,

Ecen ez escuaquin
 Eun milla guizonec.
 Beguira iraquiten
 Dagoan paciac
 Cen aisa eramaten
 Dituen onciac,
 Naiz izan bere contra
 Aiee mot guztiac,
 Eta marea andi,
 Edo ur biciac.
 Pacia bat urequin
 Icus zazu nola
 Dabilen an errota,
 Emen berriz ola.
 Ecin eguinduena
 Gure aleguinac,
 Eguiten du pertzaco
 Uraren lurriñac.
 Lurriñaren indarra
 Ezagututzea
 Izan da buru baten
 Abillidadea;
 Argatic esaten da
 Buru batec milla
 Balio dituela
 Baldin bada abilla.
 Jaquin bear da bada,
 Da indartsuena,
 Ez gorputz bortizcoa,
 Bai jaquintsuena.
 Chispa batequin amar
 Urteco gaztea

Ain da bortitza gaur,
Guizon goiantea. [non
Gueiena daquitenac,

Gaureo egunean,
Iduquitzen oi dute
Mundua menean.



CHANGURRUAC.

Itz eguiñ omen zuten
Batzarre batean
Changurruac atzerontz
Joateco gañean;
Icusiric chit zala
Modu itsusia,
Ela dudaric gabe
Chit lotsagarria.
Norc bere umeari,
Esan omen zuten,
Eraculsi beaio
Aurrerontz ibiltzen;
Oitura au emanaz
Jaiotzen danielic,
Utzi gabe ematen
Atzerontz pausoric.
Biaramon goicetic,
Omen dira asten

Umechoac aurrerontz
Erabilli-arazten,
Atzaparrae b'guñac
Dituzten artean,
Aurrerontz eraguñaz
Atzerontz ordean.
Ari dira onela
Cinez gurasoac
Egunoro zulentzen
Umeen pausoac.
Alferrica eguiten
Date aleguiña,
Ecin garaitu dute
Semechoen griña;
Atzerontz icustean
Beren garasoac
Umeac daramatzi
Oien ejemploac.

Argatic changurruac
Gaur ere dabil'tza
Beti atzerontz pauso,
Socaguille guisa;

Esaten digutela,
Emac ejemploa
Nai badec seguitzea
Ire lecioa.

AITA BERE SEMEAQUIN.

Necazari zar bat nie
Ezagutu nuen,
Ceñac bere echean
Lau seme cituen;
Lauac ain languilleac
Ain mutill azcarrac,
Non beste alacoac
Oi dira bacarrac.
Falta bacar bat zuten,
Bañan au andia,
Eta zan lauac elcar
Ecin icusia.
Echean iscambilla
Icusirie, aita
Chit triste egoten zan
Aiee ala naita.
Jaincoac lagunduric
Egun on batean
Pensamentu bat zaio
Etortzen ocan.
Beregana deituric
Esaten diote,
Nere seme maiteac
Adinazazute;
Ebaqui beazute

Maquilla me bana,
Eta guero etorri
Lauac neregana.
Obeditu cioten
Bere lau semeac,
Baita ere eramán
Beren maquill meac.
Orduan esan cion
Seme bacoitzari:
Puscatu bear dirac
Maquill ori niri.
Laister zuen bacoitzac
Berea puscatu,
Lan onec ez cituen
Chit asco necatu.
Orra, esaten die:
Orra cein errazqui
Bacoitzac eguin duen
Maquilla bi erdi.
Orain beste lau maquill
Bear dira lotu,
Eta beaituzute
Loturic puscatu.
Eguiten dute sorta
Beren maquillaquin,

Ecín puscatu dute
Lauen indarraquin.
Ari dirade lertzen
Gaisoac alferrie,
Ez da puscatzeco
Lauetan indarrie.
Orduan cien aitac
Semeai esan,
Orra nere semeac

Elcartea cer dan;
Izaten bacerate
Elcarrequin etsai,
Zuec garaitutzeco,
Ascoco da ner-nai;
Baña maquillen guisa
Elcarturic ougui,
Ez dituc gai izango
Zuentzat amabi.

ANTON ECHE-GALGARRIA.

Ustez beti jardungo
Zuela lanean,
Oficio batean
Ez bazan bestean,
Artu cituen Anton
Eche-galgarriac
Oficio mot asco,
Ez bazan guztia.
Arotzaz gañera zan
Errementaria,
Arguiña, capaguiña,
Eta dendaria;
Guero berriz gañera
Zan zapataria,
Itz batean Anton zan
Bear zan guztia.
Eciñ esan diteque
Ceucan fantasia,
Ez ere erricoac
Cien embidia.

Bere auzoan zuen
Guizon bat arguia,
Icengoiti emalle
Guztizco andia.
Onec esaten zuen
Carrican, ferian,
Lagunaquin arquitzen
Zan toqui guztian;
Apostura eguingo
Diot edoceñi,
Eta, ala nai badu
Antoni berari;
Asmatzen derala nic,
Cer zaion guertatzen
Lau urteren barrenen,
Ez bada len iltzen.
Ez du jatecorica
Izango echean,
Ez ere jaquirica
Sartzeco eltzean;

Oficio bat ongui
 Bear da icasi,
 Ez milla oficio
 Eta millac gaizqui.
 Oraindica lau urte
 Ez ciran pasatu,
 Onec esan zuena
 Bera zan guertatu.
 Antonec ecer ongui
 Ez zuen eguiten,
 Eta asi citzaion
 Gendea atzeratzen,
 Alaco moduan non
 Ez zuen inondie

Illabete osoan
 Egun bico lanic.
 Auzocoac esaten
 Zuen orduanche,
 Sarri asieo zaigu
 Anton echez-eche.
 Argatica beñere
 Ez da bear aztu;
 Bi oficioc inor
 Ez du aberastu,
 Eta bitatic gora
 Dituzten guztia
 Izan oi dira beli
 Eche-galgarriac.



ARRATOI ETA SAGÜEN BATZARREA.

Zapiron ill esqueroz,
 Sagu ta arraloia
 Millaca sortu eta,
 Ceuden guztiz joia,
 Ceren beste catuen
 Beldurrican gabe

Ciraden heren eche
 Guztiaren jabe.
 Baña illobacho bat,
 Chit mutil sendoa,
 Zapironec bazuen
 Bere antzecoa.

Demborac eguin zuen
 Guztiz eiztaría;
 Egunoro bazuen
 Lanaren saria.
 Ernaia zan, bortitza,
 Gañera catarra,
 Bere aitona becin
 Mulico azcarra.
 Goicean, arratzean,
 Ordu guztietan,
 Usaica an cebillen
 Beli zocoetan.
 Ez zuten arratoiak
 Besteaz beldurric,
 Icaratzen cituen
 Onehec bacarric;
 Ceren estu-estuan
 Arquitzen baciran,
 Beste edocēnequin
 Burrucalzen ciran,
 Eta omen cituzten,
 Ala det aditu,
 Bein baño gueiagotan
 Cembait elbarritu.
 Catar deabru ori
 Baldin iltzen balitz,
 Esaten zuten, ongui
 Guinduzquec gu anitz:
 Icusia ceagoc
 Segurqui bestela,
 Ecin bicico gaitue
 Luzaro onela.

Atera nai badegu
 Jatera zulotic,
 An diagu gañean
 Ortizac aguerloric.
 Ez baguerade herriz
 Irteten lembaitlen,
 Sarri asico gaitue
 Elcar jaten emen.
 Oien artean zan bat
 Bicro andia,
 Bizar lucea, eta
 Chit ille zuria;
 Urte asco cituen,
 Zan asco jaquiña,
 Mairan jan izan zuen
 Lau bider iriña.
 Onec esaten die:
 Baciaquial nie
 Nola goindezquean gu
 Atera emendic;
 Baita ere biurtu,
 Ceio ta dan azcarra,
 Eguiten diogula
 Burla eta farra.
 Bein baño gueiagotan,
 Iculsi dedanaz,
 Lo eguiten die beli
 Catarrac egunaz:
 Lepoan cascabel bat
 Ifintzearequin,
 Ignes eguiten erraz
 Dec soñuarequin;

Locarriaz lotutzen
Ez dec gaitz lepoa,
Cergalic nere ustez
Pisua dic loa.
Guztai citzaien
Ongui iduritu;
Baña inore ez zuen
Beretzat aditu.

Balac esaten zuen,
Ni nago gogorra,
Besteac, ni itsua.
Besteac, ni gorra.
Edoceñec ematen
Oi du consejua;
Bañagore eguiten du?
Or dago continua.



ATSOA ETA ARCAUSOA.

Gure goico bicitzan
Bici zan atsoa
Zan elizaracoia
Zan Jaungoicozcoa.
Beti mar-mar cegoan
Echean elizan,
Beti paternosterrac
Esaten ari zan.
Ez cituen ulzitzen,
Cer nai guerta cedin,
Naiz catarroa izan,
Naiz sabelean min,

Egunoroco meza,
Errosarioa,
Eta besper-ondoren
Zan calbarioa;
Baña zuen gaisoac
Eraman chiquia,
Edocean gauzac zuen
Estutzen guztia.
Egun batez ari zan
Errabiz atsoa
Ecin arrapaturie
Gonan cucusoa;

Cital orrec ez dirac,
 Cegoan esaten,
 Oean, ez campoan,
 Paquerie ematen;
 Ez diat igarotzen
 Beñere egunic
 Jaungoicoari otoitz
 Eguin gabetanic,
 Ire ortzetatica
 Utzi nazan arren
 Ala, edo onela,
 Ni libre lembaitlen.
 Itz oiee aditzean
 Nengoan pensatzen
 Cer gauzac Jaincoari
 Zaiozcan escatzen.
 Sentitzen det onetan
 Negar inciria,
 Lasterca noa gora;
 Odolez bustia
 Topatzen det atsoa
 Etziñic lurrean,
 Alquitie eroria
 Sucal-bazterrean.
 Salto eguin ondoren
 Gonatica gora,
 Arcacuso gaiztoa
 Igo zan lepora.
 Atzera eguin nairie
 Igues eguiteco,
 Eta guero lurrean
 Oñaquin iltzeco,

Erori ta jo zuan
 Erruz su-burnia,
 Eta idiqui cion
 Buruan zauria.
 ;Orduco aren oju
 Eta deadarrac!
 ;Gañera arc eguiten
 Cituen negarrac!
 Ordu bi guchienaz
 Egon zan onela;
 Cirudien larrua
 Quentzen ciotela.
 Negarrac utzi eta
 Asten da atsoa,
 Arra eta democa,
 Ceren cucensoa
 Iguesi joan citzaion,
 Eta arralsean
 Beldur zan izan cezan
 Berequin oean.
 Au da guertlatzen dana
 Cristau ascorequin,
 Ecin duten ordnan
 Nai dutena eguin;
 Baña engañatutzen
 Dirade gaiñoac,
 Guizonac, agureac,
 Andreac, atsoac,
 Baldin usten badute
 Gure Jaungoicoac
 Enzungo dituela
 Aien errezoac,

Iguesi bidaltzeco
 Udan cucusoac,
 Ez badira garbitzen
 Echeco zocoac.
 Gure otoitzac dira
 Gauza chit ederrac,
 Ez ordea baguera
 Otoitzle alferrac.
 Errezoac eguiten
 Diran bitartean,

Jardun bear du beti
 Bacoitzac lanean.
 Ezbadegu ereiten
 Soroan acia,
 Ez zaigu etorrico
 Cerutic garia;
 Eta badaucatzigu
 Ciquiñac zocoac,
 Ez zaizquigu saltaco
 Chimich-cucusoac.

ASTOA ETA IGUELAC.

Asto bat cijoan bein
 Egur zamarequin,
 Pensamentu illunac
 Eguiñaz berequin.
 Bide lucea ceucan,
 Pistia zan zama,
 Oguei ute baciran
 Il zala aren ama.
 Gañera ceucan guztiz
 Andia gosea,
 Ez zan milagro triste
 Gaiñoa joatea.
 Cinguiradi batean
 Orra non dan sartzen
 Eta, arrantz eguiñaz,
 Asten dan esaten:
 Madaricatua, bai,
 Madaricatua,
 Jaincoac niri eman

Diraden patua.
 Au entzutean ango
 Iguel cantariac
 Ichi omen cituzten
 Beren belarriac,
 Ez aditzeagatic
 Aren deadarrac,
 Ceren bestela lertu
 Nai cituen farrac.
 Batec esaten dio
 Saietsera joanie:
 Ez dago emen jauna,
 Erremedioric;
 Ona gu ere nola
 Guerau emen bici:
 Jaio guiñan ezqueroz
 Ez degu icusi
 Beste gauzaric, baicie
 Loya eta ura,

Ez izanagatica
 Guztiz oien gura;
 Onelaſe Jaincoac
 Dauca aguindua,
 Ez balitz becela da
 Guretzat mundua;
 Eta jaquin bear du
 Bere mesedeac,
 Millaca, diotenez,
 Dira abereac
 Bicitzen diradenac
 Lurpean sarturic,
 leusten ez dutela
 Seculan arguiric.
 Aiec beti contentu
 Omen dira ala,
 ¿Ez degu izan bear
 Guc ere onela?
 Bai, guc beti daucagu
 Umore alaya,
 Ecin eguingo degu
 Berdin gure naya;
 Comparatuaz aien
 Suertearequin,
 Contentu izango da
 Nor berearequin.
 Au da guertatzen dana
 Munduco gaitzaquin,
 Baldin neurtzen badira
 Andiagoaquin.
 Zu emen zaude orain
 Cinguiran sarturic,

Eta ateratzeco
 Ez dezu quemenic:
 Birauc aſitzen da,
 Baña, chito, chito,
 Iguelac deitzen dio,
 Beguirozu ito.
 Gaur zure ezbearra
 Guztiz da andia,
 Baña ez da oraindic
 Galdua guztia.
 On da jaquin dezazun;
 Da paciencia
 Gaitz andia eguiten
 Duena chiquia:
 Norbait etorrigo da
 Ortic, edo andic,
 Lagunduco dizona
 Irteten emendic.
 Au aditu ondoren,
 Aren mesedea
 Asi zan piſcabana
 Artzen asnasea.
 Egonzangueldi-gueldi
 Dembora lucean,
 Gañeco zamac cencan
 Uraren gañean.
 Indarrac citzaizquion
 Piſcaca etorri,
 Eta irteteco gai
 Orra non zan jarri.
 Cinguiratic campora
 Atera zanean,

Astoac esan zuen
Bere barrenean;
Nie emen icusten det
Gaur nere burna,
Aditu deralaco
Iguel consejua;
Bestela gira-bira
Arraz necaturic,
Cinguiran guelditnco

Nintzan ni itoric.
Ez det nic, ez, azluco;
Da paciencia
Gaitz andia eguiten
Duena chiquia;
Eta mundu onetan
Nai duenac bici,
Cernai guerta daquion
Ez du bear etsi.



ASTOA ETA CHACURRA.

Asto bat zamatua
Alporch andiaquin
Cijoan feriara
Nagusiarequin.
Eheco artzanorac
Naiz bai, naiz ez deitu,
Beti-beti ondolic
Oi cion seguitu.
Ibilli eiranean
Irubat legoa,

Gure nagusi orrec
Sentitzen du loa.
Guelditzen du astoa
Bide bazterrean,
An bazcatzen dabillen
Lo eguin artean.
Etziten da soroan,
Asten da zurrungaz,
Oroitu gabetanic
Astoaz, ez zamaz,

Bacébillen astoa
 Soroan bazcatzen,
 Eta chacurrae cion
 Atzelic jarraitzen;
 Baña nola astoa
 Zan guztiz andia,
 Atzeman ecin cion
 Ortzaz janaria.
 Orduan bi escuac
 Gorontz alchaturic,
 Asitzen zan ibiltzen
 Chutica jarriric,
 Eta asto gaistoac
 Aleharic bizcarra,
 Eguiten cion beti
 Burla eta farra,
 Esaten ciolaric:
 ¡Au bai comedia!
 Diruric itsuaren
 Chacur dantzaria;
 Eta onec esaten
 Dio astoari,

Piſcacho bat, maitea,
 Berontz macurrari.
 Onela dabiltzala
 Poliqui jostalzen,
 Leoi bat basotican
 Zaye ateralzen.
 Artzanora lasterca
 Badijoa andic
 Utzitzen duela an
 Astoa baccaric:
 Onec eguiten dio
 Ari deadarra,
 Arc berriz urrutitic
 Eguiten du farra.
 Asto gaiſoa il zan,
 Ez dago dudarie,
 Escarmentu eder au
 Guztioi utziric.
 Besteac laguntzea
 Guri nai badegu,
 Gue ere besteai
 Lagun beaiegu.



ERLIQUIDUN ASTOA.

Asto bat zamatua
Guztiz erliquiaz
Cijoan inon ecin
Cabiz fantasiaz,
Cergatic, zutenean
Gendeac icusten,
Belaunico ciraden
Bereala jartzen,
Eta bide citzaion
Buru artan jarri,
Eguiten ciotela
Belaunico ari:
Argalican ceraman
Guztiz goratua
Eta aicez betea
Gaiñoac burua.
Onela icusirie,
Esan cion batec:
¿Agur oyec iretzat
Dirala uste der?
¿Ez dec besteric falta,
Baicica astoa

FAB. 5.

Adoratzea ala
Nola Jaungoicoa!
Macurtu ezac ire
Aicezeo burua;
Ez dituc agur oyec
Iretzat, caicua.
¿Ez aldaquic dijoala
Cucha bat gañean
Erliquiaz betea
Ire bizearrean?
¿Cembat asto badira
Guizonen artean!
Arquitzen diranean
Empleo batean,
Sinistatzen oi dute
Gure cortesiatic
Dituztela gungandic
Ayec mereciac;
Eta guero galtzean
Beren empleoac
Guelditzen oi dirade
Len beciñ astoac.



LEOYA ETA ASTOA.

Leoi andi bat zan bein
 Goicetic atera
 Asto bat bere lagun
 Arturic, cicera.
 Artzai-chaol batean
 Uzten du aztoa;
 Bide chidor batera
 Bera badijoa.
 Astoac bear zuen
 Andic arranz eguiñ,
 Leoiaganonz eiza
 Guztia joan cediñ;
 Añ gogoz eguiten du
 Astoac arrantza,
 Non zuen leoiaren
 Orruaren antza.
 Abereac dabilta
 Batetic-bestera,
 Eta guero dijoaz

Bide chigorrera.
 Astoac sartu cien
 Alaco beldurra,
 Non ez zuten icusten
 Beguiquin lurra.
 Jaten ditu leoiac,
 Utziric ezurrac,
 Usaiez ase ditzan
 Astoac sudurrac.
 Ezurrac icustean
 Esan omen zuen:
 Piſcabat lenchiago
 Egon banintz emen,
 Ez nuen, ez, utzico
 Bacar bat biciric,
 Ez cecen, ez catamolz,
 Ez otso, ez artzie.
 Aditu zuenean
 Fanfarroiqueria

Leoiac eguin zuen
Algara andia.
Onen tripa bete
Guelditu zan eicez,
Astoarena berriz

Len becela, aicez.
Farra eraguiten du
Guizon beldurtiac
Esaten as'en bada
Bere balentiac.



CHIMUA LOTSATURIC.

Egazti eta arrai,
Abere guztia,
Deitu omen cituen
Jupiter andia,
Eta esan cioten
Far irriarequin,
Certaraco zalozten
Beazute jaquin.
Umeric ederrena
Dacarquidan iri
Emango diot nie gaur
Lepande bat sari,
Cillarrezco letretan
Esaten duena,
Guraso guztietan
Au dec abillena.

Badijoaz lasterca
Guztiac echera
Beren umeac artu
Eta ecartzera.
Riurtutzen dirade
Guztiac batetan
Dituztela umeac
Beren bizcarretan.
Chimuac eracusten
Du bere umea,
Jaio berria eta
Gañera emea.
Jupiter asitzen da
Ezlanda eguiten
Duenean alaco
Figura icusten.

Lertu nai dute ere
 Abere guztia
 Farráz eta algaraz,
 Chiqui ta andia.
 Chimu gañoa arras
 Zayote lotsatzen,
 Eta da Tetuana
 Igues andie joaten.

¿Nolatan atrebitu
 Zan eramatera
 Ume itsusi ura
 Guztien aurrera?
 Cergatican ez oi da
 Ume itsusiric
 Bere gurasoentzat
 Ederra ez danic.



JUPITER ETA ASTOA.

Jupiterri, ecñā dan
 Jaungoico falsoa,
 Quejatu citzaion bein
 Bieiro astoa.
 Ez daquit, esan cion,
 Nola dan astoric
 Baratza zaia, nausi,
 Izan nai duenic.
 Egunoro narama
 Plazara berequin,
 Aza, porru, tipula
 Eta lechugaquin.
 Oyec saldu ondoren

Biurtzen naiz nequez
 Arras zamaturica,
 Echera, gorotzez.
 Ecerere jan gabe
 Nabill erdi illa,
 Goitic-bera sentitzen
 Derala maquilla.
 Astoaren negarraz
 Jauna da cupitzen,
 Eta tellaguin bati
 An dio bialtzen.
 Laſter biurtzen zaio
 Berriz Jupiterri,

Esanaz: tellaguiñac
 Itzen narabill ni.
 Jan guchi ematen dit,
 Maquill golpe aseco,
 ¡Nombait eraman beat,
 Jauna, cembait chasco!
 Emen nator, berorri
 Berriz escatzera,
 ¡Arren! bidal nazala
 Beste eche batera.
 Larru-zale zar bati
 Bidaldutzen dio;
 Astoari obequi
 Ez dijoaquio.
 Biurtu zan lasterca
 Berriz quejarequin,
 Eta jaunari cion
 Onela itz eguin:
 Jauna, larru-zaleac
 Zamatzen nau erruz
 Egunoro idi, bei
 Eta zaldi-larruz.
 Nere uste guztian
 Dauca deseoa
 Zamaz lerturic illa

Ni icustecoa:
 Nola nere larrua
 Dan asqui andia,
 Nerequin eguin nai du
 Segurqui zaguia.
 Jauuac, entzunic aren
 Itz negargarriac,
 Ichi ciozcan arras
 Bere belarriac,
 Esaten ciolaric:
 Emendic aurrera
 Ez datorrela iñor
 Queja ematera;
 Ez naiz iñorchoz ere
 Berdin cupituco;
 Beren patuarequin
 Dira gueldituco
 Asto eta cherriac,
 Mandoac, zaldia,
 Guizon eta abere
 Diraden guztia.
 Iñore ez du estimatzen
 Bere suertea
 Ustez dala besteena
 Ascozaz obea.



MEDICU ITZ-ONTZIA ETA ERIA.

Eri bat guztiz gaizqui
 Cegoan oiean,
 Eta pulsua ongui
 Artu ondorean
 Asten zaio esaten
 Bere medicua:
 Gaizqui iduritzen zat
 Gaur zure pulsua;
 Indarrica ez dauca
 Eta bitartean
 Eun golpe daucatzi
 Minutu batean,
 Sendatu ciñalaco
 Cerade zu poztu,
 Eta cerbait jan dezu
 Edo cera oztu.
 Alferric ucatuco
 Dirazu zue niri,
 Cerbait onelacoše
 Pasa zazu zuri;
 Bestela seguru naiz,

Ez daucat dudarie,
 Ateraco cinduan
 Nie gaitz onetatic.
 Milla atera ditut
 Nie nere demboran;
 Ez da bat bacarrican
 Beste mundura joan.
 Gauzarica onena
 Izango da emen
 Zure confesorea
 Deitzea lembaitlen;
 Ongui daquizu, iñore
 Esan gabetanic,
 Ez dacarrela iñoiz
 Gauza onac gaitzie.
 Asarratutzen zaio
 Onetan eria,
 Eta esaten dio:
 ¡Berritsu andia!
 ¿Certan ari cerade
 Aitzaquia billa?

Gaitz onetatic zuri
 Ill zaizquitzu milla.
 Ez det jan, ez naiz oztu,
 Ez det itz bat eguiñ
 Ez oraiñ eta ez len,
 Ez bada zurequiñ.
 Zure betico itza
 Eta erausia,
 Jaquizu asco dala
 lltzeco eria.
 Zure aitzaquiaquin
 Zoazquit emendie,
 Ez det nic sendatzeco
 Medicu bearrie.
 Beti esan dirazu
 Ecer ez derala,
 ¿Eta orain diozu

Gaizqui nagoala?
 Badaquit nic cerdedan,
 Ez nago ain gaizqui,
 Erausi guchirequin
 Jarrico naiz ongui.
 Burua macurturic
 Medicina joan zan,
 Eta guero eria
 Lañter sendatu zan.
 Itz guchi, begui ona,
 Andia centzua,
 Oicc eguiten dute
 Ona medicua;
 Baña oraindican da
 Medicu ohea
 Osasunari ongui
 Contu eguitea.



MANDO ZAMATUAC.

Bi mando cijoacen,
 Biac zamatuac,

Bala eta bestea
 Elcarri lotuac.

Bata cijoan arras
 Ederqui jantzia,
 Cinta, cascabel, luma
 Betea guztia.
 Atzetican cincillie
 Ceucan joaleac
 Iduqui oi cituen
 Airean caleac:
 Bizcarrean ceraman
 Urre zama andia,
 Ongui botatzen cion
 Gendeac beguia.
 Bestea lotsaturic
 Cijoan arlozez,
 Zamatu zutelaco
 Zacu garagarrez.
 Ez ciran nerequico
 Arrotzeco galac
 Bizcarrean cituen
 Garagar costalac;
 Irteten zaiozcate
 Lapurrac bidean;
 Mando eJerragana
 Zucen-zucenean.
 Osticoca asten da


Eguiñaz irrintzi,
 Eta alderatutzen
 Ez die nai utzi,
 Beldurrez gueldi dediñ
 Jantzi gabetanie
 Bota zuen bezala
 Amac sabeletic.
 Nola cituzten chispac
 Lapurrac berequin,
 Ill eta joan ciraden
 Diruac arturic,
 Uquitu ere gabe
 Bestea utziric.
 Au icusi ondoren
 Bigarren mandoac,
 Esan omen cituen
 Itz onelacoac:
 Deabra echeraño
 Bijoia jantzia
 Laburtu bēar badu
 Onela bicia;
 Naiago del eraman
 Ascoz garagarra,
 Ecen ez urre zama
 Edo naiz cillarra.



ACERIA ETA MATSAC.

Cincillica daudela
Ditu aceriace
Icnsten mats mordoac
Eldu ori-oriac;
Jartzen da beguiraca
Gañoa goseac,
Badabiltzquio tripac
Jateco zaleac.
Saltoca asitzen da
Aleguiñ guztian,
Ordu biyan badabill
Eciñ irichian.
Icusi zuenean
Ez zala prochuric,

Matsai esan cien
Beguiac jasic:
Zaute, zaute mordoac,
Zaute ostopcan,
Ez cerate oraindic
Jarri sasoiean.
Cerbail nai, eta ecin
Badegu irichi,
Aceriac Lecela
Bear degu utzi,
Zaude, zaude, esanaz,
Zaude or berean,
Cergatican ez cera
Jarri sasoiean.



LEOIA ETA ARRATOIA.

Leoi baten atzapar
 Audi zorrotzetan
 Arratoi bat cegoan
 Guztizco penetan,
 Ez cergatic jan cion
 Gazta, chorizoa,
 Baicerenquentzencion
 Gabetaco loa,
 Ordu guztietaco
 Aren ibilliac
 Uzten ez ciolaco
 Ichitzen beguiac,
 Negarrez asten zaio
 Barcacio esque,
 Uzten dio, esanaz,
 Orra, baoaque.
 Oxta illabete bat
 Oraindica joan zan,
 Orra non leoi ori
 Erori zan trampa.

Asiltzen da eguiten
 Alaco orruac,
 Non icaratzen ditu
 Ango inguruac.
 Ezagutu ondoren
 Orruan leoia,
 Lasterca an dijoa
 Gure arratoia.
 Ortzaquin bereala
 Du soca puscatzen
 Eta trampatic libre
 Du leoia uzten.
 ¡Nore esan leoiari
 Orduan bicia
 Eman bear ciona
 Zala arratoia!
 Argalican munduan
 Andi izan arren
 Ez daqui batec noren
 Bear izango den.



OTSO ETA ARTZANORA.

Otso andi bat
 Mendiac gora
 Cijoala goiz batean,
 Artzanor andi
 Batequin topo
 Eguin zuquean bidean;
 Ceuden lecuán
 Guelditu ciran
 Biac elcar icustean.
 Adisquidea,
 Dio otsoac,
 Agur andi bat eguiñic,
 ¿Noiz ezquero zu
 Onen goiz emen
 Zure ardiac utziric?
 Ez cera, ez gaur,
 Motibo gabe,
 Apartatu artaldelic.
 Artzanor orrec

Eranzun cion:
 Nai nuque egon zure-
 Aurrera nola lquin,
 Bici beagun
 Bioc dezagun itz eguin;
 Zue nai badezu,
 Nere partetic
 Izangonuqueatseguin.
 Icusi zuen
 Otso andiac
 Ceucala arc lepandea,
 Artzen ciona
 Lepo guztia,
 Burni-arantzez betea,
 Eta ez zala
 Orduan erraz
 Arequin burrucatzea.
 Lotsa zan baño
 Beldur gueyago

Bere barrenen sentiric,
 Gusto oriñen,
 Eranzun cion,
 Gaur bertan izan nai
 Eser gaitecen [detnic.
 Emenchen bertan
 Izan ez dedin esparic.
 Iduritzen zat,
 Dio artzanorac,
 Dala guretzat ohea,
 Aurrera bioc
 Len degun baño
 Obeto elcar artzea,
 Batac besteari
 Esanaz beti:
 Agur, nere adisquidea.
 ¿Nore izango da,
 Esan zadazu,
 Bici guztian gogoa,
 Beti barr enen
 Iduquitzeco
 Elcarrentzat gorrotoa,
 Ta letaguiñaz
 Puscatutzeco
 Bata besteari lepoa?
 Ez dagoquio
 Beste aldetic,
 Esan bear da eguia,
 Zu bezalaco
 Indartsu bati
 Perseguitzea ardia,
 Cergatican da

Aberecho bat
 Ona eta izutia.
 Zuretzat ascoz,
 Dudaric gabe,
 Dira contresta obeac,
 Leoiac, artzac
 Ta cata-molzac,
 Eta basoco urdeac;
 Oiequinche zuc
 Eguin beaituzu
 Aurrera zure peleac.
 Arrazoi dezu,
 Dio otsoac,
 Ez duenari indarric
 Lotsagarri da
 Gaitz eguilea
 Ta ez uztea biciric;
 Ez del guciago
 Alacoquin
 Nicizannaico conturic.
 Ematen dizut
 Itza, eguiatz,
 Ez naicela ni aurrera
 Joango emendic
 Zuen alderontz
 Zure ardiac jatera,
 Baicica zuec
 Bisitatu ta
 Zuen ordenac artzera.
 Orduan elcar
 Despedituric
 Biurtu ciran echera,

Bata bestearen
Beldurric gabe
Soseguz asnas artzera,
Eta cuidado
Guztiti libre
Descantsuz lo eguitera.
Egun batzuec
Igaro eta
Asi zan ardi contatzen,
Eta artzanora,
Ieusirica
Ari cirala bacantzen,

Len becin berri
Asi izan zan
Egunetagauecaltzen.
Gaitz eguileco
Grina gaiztoa
Batec badacar jatorriz,
Gaztelandican
Ez badu uzten,
Gaitza eguingo du be-
Naiz bere itza [rriz,
Eman dezala
Milla eta milla aldiz.



MENDIA AURGUITEN.

Turmoia ortic,
Chimist emendic
Ieusirica, gendea,
Egun batean
Bide cegoan
Arras beldurrez betea,

Eta eguiaz
Posible ez zan
Soseguric izatea.
Dударic gabe,
Esaten zuten,
Juicioco eguna

Da aditzera
 Tormenta onec
 Guri ematen diguna,
 Bear becela
 Prestatutzeco
 Eguin zagon aldeguna.
 Onetan norbait
 Badator, eta
 Orra non duen esaten,
 Chit urrutian
 Mendi andi bat
 Omen dagoala aurgui-
 Onetaraco [ten,
 Deadar aiec
 Dituela arc eguiten.
 Icara utzi
 Alde bat eta
 Gendea dago iñillic,
 Cer gauza andie
 Bear ote duen
 Atera aren barrendie,
 Cergatic gauza
 Chiquiric eciñ
 Diteque irten menditic.
 Badator norbait
 Berri andia

Gendeari ematera,
 Dala mendiaren
 Sabeletican
 Sagu chiqui bat alera:
 Au aditu ta
 Gende guztia
 Juan zan algaraz eche-
 Onela guerta [ra.
 Oi da cristabac
 Maiz urrutico gauza-
 Argatican gue [quin,
 Bici beagu
 Gure errepain zarra-
 Gueldiez gaitecen quin
 Asco becela
 Guero chalma andiba-
 Urrutitican [tequin.
 Eguinagatic
 Inchaurreacsoñuandiac
 Alderatu ta
 Izan oi dira
 Ascotaninchaurechiqui-
 Eguia andi an lac.
 Eracutitzen
 Digu esperienciatic.



AIZCORA ETA QUIRTENA.

Egur-guille bat
 Sort eguilera
 Joan zan basoan barre-
 Eta bidean lna,
 Galdu citzaion
 Aizcoratican quirtena.
 Sort eguiteco
 Beste berri bat
 Eguin nairic aizcorari,
 Gaya escalzen
 Asi citzaion
 An zan arbol bacoitza-
 lñore ez cion lri.
 Gairic eman nai,
 Eta arteac bacarrie
 Adar mecho bat
 Esqueñi cion
 Gaño artzaz cupituri;
 Quirten berria
 Eguin ondoren

Sartzen dio aizcorari,
 Eta golpeca
 Asitzen zaio
 Arte ariñe berari.
 Au icusi ta
 Asten dirade
 Zumarrac eta lizarrac,
 Arte onaren
 Contra eguiten
 Oju eta deadarrac.
 Asto andia,
 Esaten die,
 ¿Ez alequien oraindie
 Egur-guilleac
 Bici dirala
 Gue galtzen degun bi-
 Orra cer esquer [citic?
 Ematen dian;
 Orain asi dec igandie,
 Sarri ez gueatzic

Bat bacarrican
 Basoan utzico zutic.
 Iri bacarrie
 Eguin bacian
 Tonto-izar orri, caltea,
 Ecer ezuen,
 Baña guretzal

Ez dec izango ohea.
 Bere etsaiari
 Eman badio
 Noizbait norbaitec es-
 Len edo guero [cua,
 Icusico du
 Galduric bere burua.



BADA JAUNGOICO BAT.

Cerua eta lurra,
 Eta ichasoa,
 Dagozquigu esaten
 Badala Jaincoa:
 Inore secular bala
 Onetan dudaric,
 Ez luque bere-buru
 Esatea baicic:

Beti argui emanaz,
 Len becin andia,
 Egunoro icusten
 Degu eguzquia;
 Urteac joanagatic
 Millaca pasatzen,
 Len bezalaše digu
 Arguia ematen.

¿Nor eguin ote zuen,
 ¿Cer arrigarria!
 Beñere acabatzen
 Ez zaigun arguia?
 ¿Nore, igaroagatic
 Egunac, urteac,
 Gorde-arazten diozea
 Lenengo bideac?
 Baldin iritelen balitz
 Bide aietatic,
 Ez litzaque guelditzen
 Guizon bat bicirie;
 Piñcabat joaten balitz
 Arontz eguzquia,
 Lañter lezaque otzac
 Il mundu guztia;
 Eta onontz baluque
 Pauso bat ematen,
 Bereala beruac
 Guinduzque itotzen;
 Ondarrae ez baleza
 Gueldi itsasoa,
 Orobat litzateque
 Mundua itoa;
 Baña Jaungoicoaren
 Ordenac arturic,
 Beñere igarotzen
 Ez da ondarreñic.
 Baldin noizbait norbai-
 Naibaluque jaquin [tec
 Lembicico guizona
 Ceñec zuen eguin,

FAB. 6.

Bijoa aditzera
 Jaquintsun andiaç,
 Eta icusico du
 Cer astaqueriaç
 Aien mingañetatic
 Dituen aditzen,
 Eta nola len becin
 Ilun dan guelditzen.
 Galde bizaie nola
 Gue mundu guztia
 Icusteco asco degun
 Begnico nimia;
 Nola odoiaç gora
 Joaten dan artea
 Dan posible ain ac
 Chiquitic sortzea;
 Nola irten bezala
 Chittoa arraultzelic
 Ez duen uts eguiten
 Mococa aleric;
 Nola enadaç eguin
 Oi duten cabiaç
 Arriturican uzten
 Dituzten guztiaç.
 ¿Cer eranzungo dute
 Guizon jaquintsuac
 Gauz oietan badira
 Gu becin itsuac?
 Atozquit onontz orain
 Zu, guizon zoroa,
 Ucatzera oraindie
 Badala Jaincoa.

Eriotzeco orduan
 Aditzen badizut,
 Eguia diozula
 Sinistuco dizut;
 Orduan nere perill
 Ao orretatic
 Jaincoaren icena
 Adituco del nie;
 Osasuna danean,
 Bai ere indarra,
 Guizonac eguiñ oi du
 Jaungoicoaz farra;
 Baña gallzen baditu
 Bat eta bestea,
 Orduan aitortzen du
 Arc bere jabea.
 Ez da mundu onetan
 Inon nacioric
 Jaungoico bat badala
 Aitor ez duenic;
 Azquenean mendico

Guizon basatic
 Egui an sinistatzen
 Oi dute guztia.
 Bada, bai, Jaungoico
 Danie justuena, bat,
 Cerua eta lurra
 Eguin dituena;
 Zueguin cenduen, bai,
 Nere Jaungoicoa,
 Lembicico guizona
 Zure antzecoa;
 Zueguinac dirade
 Eguzqui, illarguia,
 Izar ederrac eta
 lehaso andia;
 Oice icusten dira
 Gauaz ta egunaz
 Alabantzac eguiten
 Zure ontasunaz,
 Zure jaquinduriaz
 Ta anditasunaz.



GAUZARIO CHIQUIENETAN DA AUNDIENA
JAUNGOICOA.

Nore esan gure
Jaungoico onac
Gauzario chiquienetan
Poderiorie
Andienaren
Mue arac dizquigula e-
Au iensteco [man,
Istoria bat
On da nie conta deza-
Inguma zuri [dan.

Isusi batec
Oi ditu udaberrian
Millaca arraultzac
Or-emen uzten
Masust arbolen orrian,
Au jan dezaten
Andie irtenie
Arrac aleguin gaztian.
Ala guertatzen
Da, cergalican

Ozta dirade irteten,
 Berealaſen
 Asten dirade
 Gogotic ostoa jaten,
 Illabetea
 Guchienean
 Ez dira jaten gueldi-
 Ostoz aseaz itzen.
 Eguiten dira
 Beatza becin lodia,
 Eta orduan
 Aiec aotic
 Botatzen dutenlirdia,
 Berac giraca
 Darabiltela
 Uzten ditu estalia,
 Badirudite
 Ezcur aleac
 Orduan oso-osoac,
 Aur-jostatzeco
 Boltsa batean
 Norbaitec sartutacoac;
 Norc sinistatu
 Bear dutela
 Piſtu guero onelacoac.
 Uda berria
 Datorrenean
 Asten dirade irteten
 Chulo bat boltsan
 Eguin ondoren,
 Eta egoac zabaltzen,
 Cergatic boltsan

Dauden artean
 Inguma dira biurtzen.
 Guero arraultzac
 Amac bezala
 Arbol ostoa eguin,
 Berealaſe
 Oienchen guisa
 Guelditzen dirade illic;
 Gure bieia
 Laburra dala
 Ez degu cerquejaturic.
 Aien lirdia,
 Ceñac dirudi
 Armíarmaren sarea,
 Boltsa guisara
 Dagoalaco
 Du icena capulea;
 Ciricuaren
 Iena artzeco
 Falta zaio iruitea.
 Ciricu au da
 Zuria, edo
 Arto bizar colorea,
 Guero bacoitzac
 Ematen dio
 Nai baldin badu ohea;
 Purpurarena
 Jantzi beauea
 Baldin bada errequea.
 Colore gorri
 Purpurarena
 Mascor baten barrenan

Mascorra jaten
 Gosez asi ta
 Zacur batec ondarrean
 Arquiara
 Zuen, muturra
 Tintez busti zuenean.
 Orra erregueen
 Soñeco ederrac
 Inguma batzuen lana,
 Eta colore
 Gain-gañecoa
 Mascorcho batec ema-

Au icusi ta [na;
 ¿Cein da guizona
 Aurrera arrotncodana?
 Ornindic balitz
 Norbait munduan
 Nai ez duena sinistu,
 Bear degula
 Dudaric gabe
 Demboraz guztioe piz-
 Sinistamentu [tu;
 Milagrozo au
 Ingumac dio erraztu.



CUTUNA.

Nere adisquidea,
 Bear dezu jaquin
 Guertatutzen oi dana
 Munduan gurequin:
 Ñor ez da contentu
 Bere suerteaz,
 Embidia gaiztoa
 Du batat besteaz.
 Necazariac dio:
 Zori-onecoac

Dira mayorazcoac
 Ta indianoac.
 Oiee diote berriz:
 Pocezo bicia
 Munduan daramana
 Da necazaria.
 Medicuac nai luque
 Izan letradua,
 Onec mercataria
 Edo medicua.

Ezconduac ezcongai,
 Ezcongaiac senar;
 Ezagutzen ditut nie
 Onelaco amar.
 ¿Nore ote danca bada
 Arrazoi onetan?
 Ez batac, ez besteac,
 Diot nie benetan;
 Arrazoia da beti
 Arquitzen erdian,
 Ez gueieguien eta
 Ez guchieguien.
 Baldin gueiegui badu
 Batec ondasuna,
 Gueienetan faltatzen
 Zaio osasuna;
 Eta nola au gabe
 Ez dan zori-onic,
 Ozla arquitzen oi da
 Content aberatsic.
 Pobreac oi du berriz
 Osasun andia,
 Apetitn azcarra,
 Janari chiquia;
 Argatic bicitzen da
 Beti embidiaz,
 Betigaizqui itz eguiten
 Aberats guztiaz;
 Eta fortunaz bera
 Aberasten bada,
 Len baño gaizquiago
 Benturaz bici da.

Beguira zue daquizun
 Guizon lodi ari;
 Nie ezagutu nuen
 Ura necazari,
 Goicetic arratsera
 Beti aitzurreetan,
 Osasun onarequin
 Umore onean;
 Aberastu zan guzliz
 Ameriquetatic,
 Baña gueroztic ez du
 Osasuna onic;
 Janac eta edanae,
 Lanic ez eguiñac,
 Emanac ditu orree
 Gaur dituen miñac;
 Eta nola bait daucan
 Odolac josia,
 Illoro guchienaz
 Bear du sangria;
 Amar legua oñez
 Eguiteco arc len
 Beste aimbeste ordu
 Gueiegui cituen;
 Eta ecin liteque
 Gaurco egunean
 Ordu betean ere
 Ibilli bidean.
 ¿Certaraco dirade
 Gure ondasunac
 Falta bear badigu
 Eguiñ osasunac?

Ez da, ez da munduan
 Bear diru asco
 Pocez eta contentuz
 Bici izateco;
 Eta umore ona
 Daucana naicoa,
 Non-nai dauca bicitza
 Zori-onecoa.
 Jaincoac ala nairic
 Dirade chit guchi
 Ecin ditezqueenac
 Lan eguin ta bici;
 Gañeracoac dira
 Alfer-tzar utziac,
 Lanican eguin gabe
 Ongui bici naiac.
 Erleaquin Jaincoac
 Digu eraentsi
 Nola bici munduan
 Nai bada icasi;
 Dirade languilleac,
 Dira contuzcoac,
 Ez digute esango
Guero guerocoac.
 Pocie jango luteque
 Gañoac guztia
 Añ neque andiz eguiñ
 Oi duten eztia;
 Baña oroitzen dira
 Badala negua,
 Orduco beautela
 Eguiñ gordaidua.

Ala, ez dute jaten
 Daucaten eztitic
 Egunoro gañoac
 Piñcacho bat baicic;
 Eta negu gogorra
 Etortzen danean,
 Jan ta lo anchen daude
 Descantsuz eultzean.
 Mantentzen dituenac
 Airecò choriac,
 Ichasoco arraiac,
 Lurreco piñtiac,
 Ez du iltzen utzico
 Goseac guizona,
 Contuzcoa danean
 Ta languille ona.
 Izan ezquero jana,
 Edana, jantzia,
 Gañeraco guztia
 Da eraqueria.
 Empleo eta onrac,
 Aberastasunac,
 Dirade banidade
 Ta arrotasunac.
 Norc duen zori-ona
 Jaquiñ nai badegu,
 Placetara joatea
 Besteric ez degu.
 Lana erruz eguiten
 Duena asteen,
 An dabill dantzari
 Contentuz jaiean. [tzen

Ez da iñon festaric,
 Ez da mercaturic,
 Gogo badu iensi
 Ez dezaqueenic.
 Nai badu estatua,
 Nai badu cafea,
 Asco du lembieico
 Tabernan sartzea;
 Mai ona topatzen du
 Gogo onarequin,
 Eta ez zaio falta
 Norequin itz eguin.
 Asco du pasalzeco
 Arc egun guztia
 Chopin bat ardo eta
 Lau cuartoco oguia.
 Ez du coche bearrie,
 Ez ere zaldiric,
 Maquilla bat asco du
 Baldin bada loiric,
 Or salto, emen salto,
 Joateco airean,
 Oñac eiquindu gabe
 Batere bidean.
 Nequeac emanican
 Jateco gogoa,
 Chit ona arquitzen du
 Baba ta taloa.
 Irleteco egunoro
 Erraz gorputzetic,
 Onelacoac ez du
 Ayuda bearrie.

Lanari utzi eta
 Echean sartzean,
 Pozten da emaztea
 Deica aditzean
 Umeai, esauaz:
 Atozte echera,
 Aita orainchen dator
 Eta bazcaltzera.
 Errezatu ondoren
 Asten dira jaten,
 Guztia apetitua
 Ona du arquitzen.
 Egniazqui dirudi,
 Aiee ienustean,
 Aingueruac dandela
 Bazcaltzen lurrean.
 An arquitzen dirade
 Poza ta paquea,
 Zori-onecoa da
 Aien izatea.
 Ongui balequiteque
